

anaitasuna


1978.EKO MAIATZAREN 1EKOA . 362 - ZENBAKIA. 50 PT.A.

7

ORO GUDURA HALA!!



HARRI BATEKIN HASI ZEN



A. B. ESPAÑA N.º 4812

zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen



ORO GUDURA HALA!!

Maiatzaren lehena gertakariz betea izan dugu. Batzu onak, beste batzu ez hain onak. Guztiak ondo kontutan hartzekoak, dena den.

Alde batetik aipa ditzagun albiste onak lehenik. ANV, ESB, HASI eta LAIAk, Altsasuko mahai inguruan bildurik HERRI BATASUNA sortu digute, ezker abertzaleon indarrak Udal Hauteskundeetan batuko dituen elkarteak hain zuzen. Abertzale sozialisten Fronte honetan dauden guztiak holakoak izan arren, tamalez, sozialista eta abertzale diren guztiak ez daude oraindik hor, eta guztiok nahi genuke falta direnak ere, EIA eta ESEI halegia, horra lehenbailehen sartzea. Batasunak indarra dakarrela ahortzi xamar eduki dugu euskaldunok, baina ba dirudi, berandu baino lehen horretaz kargutzen hasiak garela ezinbetea. Eta zentzu honetan pozgarria zaigu, bai horixe, ANV eta ESB arteko lasterko fusioa, HASI eta LAIA ezkongaietan ari direla jakitea ere pozgarri dugun bezala. Eta pozten gara, aspaldidanik lortu nahi dugun ezker abertzalearen batasunerako urrats tinkoak gertatuko direla espero baitugu.

Gu baino bizkorrago joan dira horretan, ikus eta ikas dezagun guztiok, PSOE eta PSP, horrela, apirilaren azken egunean espainol sozialisten batasuna lortuz. Hurrengo hauteskundeetan, dudarik ez, berorien pisua holaxe nabarituko.

Aberri Egunean kalera irten ginenok, gaur ere, maiatzaren batean, berriro kaleratu gara. Nazional eta sozial problema batera daramagu euskaldunok halabeharrez, eta biak konpontzeko Euskal Herri erabat askatua behar dugu. Nazionalki askatua, berjabe, euskalduna eta batua, alde bateko eta besteko euskaldunok osotu eta gobernatua. Sozialki askatua, gizonak gizona gehiago zapal ez dezan. Lan egitea goikoen mesede bat barik, pertsonaren eskubidea izan dadin eta langileak bere eginen kontrol zuzena erabil dezan. Eta gure hiriburuetakako manifestaldietan ibili diren 200.000 pertsonen helburu horren atzetik ari direla argiro erakutsi dute.

Baina helburu hori lortzeko, batasuna behar da. Abertzaleon batasuna, sozialisten batasuna, euskaldunon batasuna. Kondenatzekoak dirateke, hortaz, protagonismo alderdikoirik erakutsi duten alderdi eta taldeak, dela beren hitza hautsiz, dela ahozko probokazio inozoak eginez.

Aurten gauza berri bat agertu izan da Bilbon maiatzaren lehenean: *Internazionala euskaraz*. LABek beraren hitzak (G. Arestik euskaratuak) atera eta banatu egin zituen, eta Bilboko kaleetan zehar, historian lehen aldiz, sozialisten nazioarteko hymnoa entzun ahal izan genuen euskaraz, horrela gaur arte falta zitzaion nazioartekotasuna biribilduz. Kantu hori entzutean, balkoi batetik agure zahar batek, emozioaz nigarrez, hola oihukatu zigun:

—Hori dok hori! Ba zuan ordua! Eta kalekooi krabelin gorriak bota.

Eta arrazoia zuen. Bai, ba da ordua. Behialako *Libertad* eta *Unidad* haik, gaur *Askatasuna* eta *Batasuna* bihurtu zaizkigu. Eta ez dira itxura hutsak, barruan, jendeen eta gizartearen pentsaera eta sentiberatasuna erroz aldatzen ari direlako seinale ageri ageriak baizik. Horregatik, gora maiatzaren lehen eguna, munduko langile guztien eguna, horrexegatik gure eguna ere dena.

Ikas eta kanta dezagun guztiok:

| | | |
|--|--|--|
| <i>Zutik! lurrean kondenatu zaren langile tristeal Nekez ginen elkarganatu. Indazu albiristeal</i> | <i>Gertatuak ez du ardura. Jende esklabua, jaiki! Aldaketak datoz mundura Nor den herriak ba daki.</i> | <i>Oro gudura, hala! Bihar izan dadin Internazionala Gizonaren adin.</i> |
|--|--|--|

AURKIBIDEA

- 4-5 Euskal Herrian (Altsasuko mahaia)
- 6-7 Euskal Herrian (Aberririk gabeak)
- 8-9 Euskal Herrian (Ipar hauteskundeak)
- 10 Herrian (Lekeitioko herri kandidatura)
- 12 Euskal Herrian (Amerikanoek egunero)
- 13 (Voulez-vous dancier avec moi?)
- 14 Gipuzkoako metale komenioa
- 17 Euskal Herriaren eguna, Orreaga
- 18 Maiatzaren lehengo gertakizunaz Bilbon
- 19 Kadreitan Feudalismoa nagusi
- 20 (Konstituzio proiektuaren analisisa)
- 21 (Plaid Cymru-rekin hizketan)
- 22 Benjamin Disraeli (ipuina)
- 23 Literatura (Norberaren bilakuntza)
- 24 Pedagogia (Pedagogia baten bila)
- 26 Gramatika
- 27 Gurutzegramak
- 28 Kaleko

ANAITASUNA

ZUZENDARITZA, IDAZKARITZA, ETA LANKIDEGIAK: J. Arzelus, T. Trifol, J. Llerandi, X. Kintana, M. Aidana, X. Gereño, J. M. Torrealday, M. Alvarez, A. Oiarzabal (Gipuzkoa), I. Zabaleta (Araba eta Nafarroa), M. Lanhatoua (Iparralde), X. Arzelus (Bizkaia), J. R. Etxebarria, P. Agirrebaltzategi, A. Eguzkitza, X. Mendiguren, I. Azkoaga, A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, J. Iturbe, B. Atxaga, I. Urtasun, M. Haranburu, M. Lasa, I. Mendiguren, Jon Etxebarri, R. Ordorika, E. Enziondo, J. L. Alvarez, S. Laffite, M. Pagola, J. Idigoras, J. Agirreazkoenaga, K. Anakabe, E. Martin, J. Aurre.

MARKETAPENA: F. Garcia.

FOTOGRAFIA: Susperregi.

KOMIKILARIA: A. Olariaga.

PUBLIZITATEA ETA HARPIDETZA: J. Idigoras, A. Uria, I. Apraiz, A. E. Marroquin.

IDAZKARITZA, ADMINISTRAZIOA ETA HARPIDETZA: Zabalbide 68-BILBO. Tf: 4335800/7/8/9.

MOLDIZTEGIA: Iparragirre S. A. Carretera de Galtzcano s/n. BILBO.

OHARKIZUNA

Anaitasuna ez da arduratuko artikuluen edukiek daren erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestaldetik, beregain hartuko du editorialearen eta bere ize-neren izenpetutako artikuluen erantzunkizuna, bere baita (hola dugu ulertzen) bere ideologi hildoa.

ALTSASUKO MAHAIA ta DONOSTIAKO URRABIDEA



Herri batasunaren aurkezpena Altsasun

Ezker abertzaleon batasuna jadanik martxo dago Euskal herri osoan. Altsasuko Mahaiaik paus bikaina eman baitu izan ere ezker abertzale bloke sendotzeko. Bloke honen batasun berezia, ordea ez da euskal ezkeraren eteridura bat bezala hartu behar. Euskadin diharduten ezker estatalista iraultzaileak hausketa bat bailitzan ikustatu dute. Baita alde guztietarik begiratuta ere ezker batasun zalabago baten urrats tinko bat izan da, HERRI BATA SUNA osatzeko, halegia.

Argitasun pittin bat eman nahirik eta euskerreko ile mataza nahasia arakatzearren, lajoera izendatuko nituzke, hau da:

- 1) KAS-eko indar abertzale iraultzaileak (Harri, Laia, Ask, t. a.)
- 2) Abertzale gizatiar sozialistak (ANV, ESB, t. a.)
- 3) Ezker estatalista iraultzaileak (EMK, OIK, LKI, t. a.)
- 4) Ezker estatalista erreformatzaileak (PSIOE, PC, t. a.)

Oraingoz behintzt laugarren taldeko alderdi erreformistak eta beste hiru lehenengoak jokabide arras desberdinetatik ari dira. Beren politikagintza bako bideak praxian puntaertzeakoak baitira, eta nahikoa da bortxakeriari buruz e. a. sortu berriak dimenikuspegiak juzkatzea.

Lehenengo hiru taldeak, berriz, udal hauteskundeetarako, e. a., egoki uztar daitezke. Baita delako ezker batasun hori ezin daiteke abstraktu era. Euskal Ezkerra hibai indartsu baten gisakobaita. Eta erreka bat bailitzan datorke talde bakoza. Talde bakoitzak bere nortasuna, ideologia, helburu bereziak ditu noski, baina hiruron artean hibai boteretsu bat osa dezakete.

Gauzak horrela, KAS-eko bi alderdiak HASI

LAlA inguruan ezker abertzale autonomoak izanki, beste abertzale humanista sozialistekin (ANV-ESB) elkartzan dira, talde bion artean Altsasuko Mahaia eratuz. Gogoan hartu behar da ere, Altsasuko Mahaia ez dela udal hauteskundeetarako eta konstituzio eperako bakarrik, dudarik gabe, denbora luzerako ere bide lagunak gerta daitezkeenez.

Jose Manuel Odriozolak oraindik orain EGI-Nen zioen bezala, Altsasuko Mahaia da orainarte ezker abertzaleok lortu dugun elkarbidetik sendoen. Altsasuko Mahaiari baitzaio ezker abertzalearen gizarte inguru guztia berpiztu ta ezurmamitzen.

Udal hauteskundeetarako, t. a., ordea, Altsasuko Mahaia ez da bere hortan hixten. Mahai hau irekia dago euskal ezker zabalago baten alde.

Baina gizarte oinharri eta koherentzia garbi batetik abiatuz. Ezker abertzaleok egositako eltzetik nahiko babarrun janak dituzte lehendik ere bai ezker estatualistek eta bai burjes abertzaleek. Horregatik aurrerantzeko negoziaketak talde bezala negoziatuko dira, edo beste bloke batekin (Euskadiko Ezkerrarekin, hau da, funtsean, ezker estatualista iraultzaile taldeekin) edo bakarka beste edonorekin.

Batek bada, ez du bestea kentzen, elkar osatu baizik. Edozein haizealdik eraman dezakeen oinharririk gabeko txorimaloa bailitzan geratuko bailitzateke euskal ezkerreko itun abstraktu bat.

DONOSTIAKO URRABIDEA

Honetaz Donostiako ezker abertzaleok urratu bide dugun esperientzia adieraziko dut. Praxis batetik abiatu dira batasuneranzko lehen pausoak. Donostiako hauzategi batzutan, hauzategietako ezker abertzale talde autonomoak (ASK-ren gisa) aspaldidanik ari gaa bai hauzo lanetan bai ezker abertzaleon koordinaketa bati bultzaka. Talde horiek hauzo elkarte eta gau eskoletan dihardute, bereziki. Talde horiek, berriz, ezker abertzale independenteen artean osatuak daude, batik bat, eta tarteka, KASeko alderdietako batzuk ere bai, beti talde hauk hauzo talde autonomoak izanik. Oinharriko Abertzale Sozialista Komite hauek, hauzo elkarleen bidez edo bakarka, hauzo ta herri asanbladak bultzatzen dituzte, Herriaren autoorganizaketa bat erdiesteko.

Baina hauzategietako ezker abertzaleen koordinaketa hori nahiko mugatua da eta egituratu beharrez, bi aldetatik eraso diogu, aipaturiko hauzategien koordinaketa hori indartu eta, bestalde, Altsasuko Mahaiko lau alderdiak udal alternatiba baten inguruan bateratu. Alderdi bakoitzeko eta Koordinaketako ordezkarien bilera batzuren ondoren, egina dugu udal alternatiba baterako berradonore bat ere, guztion artean osatu ta elkarrekiko herri konpromezu bat aurrera eramateko. Borradore

Mahaiaren aburu nazional eta herrikoietatik abiatzen da. Bi adar fronteetatik jotzen da, hau da, udal barrurantz, eta udalaren herri kontrolperantz. Udal barrutia, batik bat, hauzategiek hautatua ta hauzategien bozemaile bezala hartzen da, udal osoari begira nahiz independente nahiz alderdietako nor-tasun berezirik guttietsi gabe.

Alde batetik, bada, udal barruan herriaren parte hartze zuzenaren alde gaude, eta bestalde, hauzo elkarte eta abarren bidez herri kontrolpeko erakunde bat ezarriko litzateke.

Bitartean, hauzategietako koordinaketak lanean dihardu jo eta ke. Zenbait hauzategitarik hauzoko beharren eta arazoan txostenak bilduak dituzte hauzategien arazoak ta soluziobideak bateratu ahal izateko.

Altsasuko Mahaikoek lau teknik batzorde (ezker abertzale independenteei irekiak) ari dira gertatzen, delako udal alternatiba, euskaldun, nazionala ta herrikoiaz gainera, teknika ta profesionaltasunez egokitua gera dadin, hategia:

- 1) Kultur Batzordea (Heziketa, berreuskalduntzea, kultura herrikoa, e. a.).
- 2) Hirigintza Batzordea.
- 3) Ekonomi (eta soziologiako) Batzordea.
- 4) Osasun Batzordea (Seguru sozialak, Zahartzarrea, e. a.).


Altsasuko Mahaiak nazio egitura osoa, udal alternatiba hauk bultzatzeko, teknik batzorde (kampainak, kostuak, e. a.) eraginez ekinen dio, eta Abertzale Sozialisten Komiteek goi politika ez baina herri politika asanbladaria, eta herri autoorganizaketa ezarri ta garantizatuko dute. Horrela, horra hor, azkenik ezker abertzaleok aspaldidanik behar genuen politik tresna (Altsasuko Mahaia) abiada bizian.

Hemen goian aipaturikoak Donostialdeari dagozkionak dira. Zorionez, ordea, beste zenbait herritan ere ba dakigu udal hauteskundeak pres-tatzeko pauso bizkorrak eman direla Altsasuko Mahaiaren inguruan ezker abertzaleak oro bateratuz.

Dena ezker abertzalearen onerako izan dadila. Gure indar guztiak (alderdikeria eta protagonismo-kerien gaitetik) hortik bideratzen baditugu ezker abertzaleon multzoa ta bultzada guztiz garrantzitsuak bihurtuko dira. Euskal herriko autoorganizaketa eta herri demokrazia Herri oinharritik landatuko baita bakarrik, udal eta langile batzarreek Euskal Batzarre Nagusi bat osatuz, eta ez Madrildo Ganbarako zaunkada parlamentarien bidez, eta ez gure herritik kanpo ezker-eskuineko inperialistek ezarri nahiko diguten konstituzioarekin.

A BERRIRIK GABEAK

Iparraldean ba daude era askotako jendeak. Herrialde guztietan bezala, batipat baserrietan bezala, gazte epelak joaten dira herritik eta atzeritarrak etortzen (ekologistak, berdulariak, lurgabeak, etab...). Hots, baserririk gabe zeudenak, hiritarak, berriz, aire sanora eta bizimolde egoki baten atzetik gutartean ditugu. Ez da fenomeno hau arras gaurkoa. Duela hamar urte hasia, gaur oraindik jarraitzen da. Jende moeta asko, egia da, baina gazteak eta gazterik zahartuak ere. Esan nahi dut, biziaren surik eta erredurarik gabeak. Zergatik? Nork daki? Esanen dizute politika jokoa ustelkeria bat baizik ez dela, gaitzeko zinema bat, mundua bere azken zilo beltzera doala eta hau lekukotasunaren bidez bakarrik daitekeela alda. Gainera, aitortzen dute aberririk gabeak direla, ez ikurrinik, ez abertzaletasunik. Orduan, nabari da jende kategoria hau oso pesimista dela, nire ustez behintzat. Zer mobilizazio egin horrelakoekin? Nuklearren borroka eta beste aurreramendu molde batena edo gizartearen beste zohidura batena. Egia esan, neronek ezagutzen ditut gizarteak beste zohidura molderik behar duela aitortzen eta obratzen dutenak, baina beti daude abertzale. Gaurko egoeran, herriak nahi duen aurreramendurako eta zohimolderako autoerabakia, autonomia, aberriaren borrokan bakarrik oinharritzen zaigulako. Lehen puntu baitezpadako honen baztertzea, lehen baldintza baitezpadakoaren baztertzea zait. Jarrera okerra, guztiz okerra. Baina errax da ulertzea biziaren surik, edo munduaren surik, edo gizartearen, edo abe-



Carriquiry jauna bere buztinlari lanean.

rriaren minbizirik ez duelarik, pertsona batek ala kategoriatzeko batek ez duela mobilizazioaren arrazoirik. Eta hau da munduazkentuak hauen lehen kontradikzioa: gizartearen ez sinesten eta gizartearen salbazioarentzat borrokatzen. Hauetarik bati galdetu diot, ea kontradikzio honi zer deritzon. Eta honen erantzuna hau izan da: "borrokatzen dut borrokatu behar delako. Baina egia esan, beti eta gutizia gutirekin..." Uler dezala, ulertzen duenak esan zuen batek. Neronek ulertzen dut gauza bat oso larria, logika honen "zykloa" inguru bat dela, beti inguru bat, errota baten irudira. Atzo goian zegoena, gaur azpian eta gaur azpian dagoena bihar goian. Eta esan daiteke berdin atzo ezker zerabilena, gaur eskuin darabilela. "Renversement de situation" edo jarreraren alderantziketa. Ez dut ukatuko jarrera honetan nabaritzen zaidala idazle handi baten filosofia, batipat, Nietzsche famatuarena. Hain zuzen, honena baita inguruaren "zykloa" eta popularen mito zaharrenetarik bat, errotaren "zykloa", naturaren ingurua. Eta beharbada ez da harritu behar naturazaleetan harrapatzen badugu mentalitate hau. Mentalitate honekin lehenagoko esklabuek benedikatzten zuten beren zapaltzailea. Eta inork ezin uka, gaur baserritarrek eskuin bozkatzeko badute, horrelako zerbaitengatik egiten dutela. Hots, filosofia berria? Ez, filosofia zaharra, gure mundua bezain zaharra.

GURE BORROKAREN ZENTZUA

Hala ere, informazioaren zuzenagatik eta egiaren errespetuagatik esan behar dut ez direla atzeritik etorri guztiak horrelakoak. Ba dira abertzaleak, aberriaren borroka daramatenak, gure populuan beren bizi guztirako sustraiak sartu dizkigutenak. Hau oso bultzagarri guretzat. Gure borrokaren zentzu, oinharri eta baieztasun sakona nabaritzen baitzikigu. Baieztasun sakona gainera.

Arestian aipatu lehen kategorian horri hurbil edo hurrean dabilen pertsona batekin mintzatzen izan gara. Diferentzia garrantzitsu bat hala ere: honek bizian sinesten du, biziaren borroka darama eta dena kristau bezala. Zoritxarrez, aberriak ez du ezagutzen eta politika borrokari dagokionez desilusio sakon batetan murgilduta dago. Aita zuberotarra, ama landesa, bere izenez Carriquiry.

—Zure izena euskalduna duzu, non oinharritzen dira zure sustraiak?

—Nire izena Carriquiry Paul, aita zuberotarra nuen eta ama Landetako. Aita bere ogibidez zergabiltzaile edo gobernuaren langilea zen. Beste hiru haurride ditut eta denak funtzionarioak. Nerau, neure ogibidez eltzegile edo buztinlari naiz.

—Zeure harmada denbora non eta noiz egin zenuen?

—Marseilleko hiri nagusian egin dut, 1952-53.eko Indotxinako gerla denboran. Polizia militarrean nintzen. Ondoren laur urte egin ditut Bourges-eko



hirian artearen ikasten. Eta gero Donazaharrera etorri nintzen, hemen nago oraindik. orainak.

—Baina zeure harmadako paper guztiak atzera bidali dituzu, zergatik hori? Nola ulertu behar dugu jarrera hori?

—1968. urtean gaitzeko zoria ukan nuen neure lanean. Nahi nuen bezala nintzen. Urte horretatik laster ezagutu nuen Lanza del Vasto-ren anaikidea. Hau Gandi famatuaren dizipulua dela ba dakizu. Beraz, gogorkeriaren kontrako. Konturatu nintzen aldaketa askoren egiteko ordua etorri zitzaidala. Batipat, biziaren errespetua eta gizonarena. Hargatik, xinpletasunaren eta egiaren bideak urratu ditut. Hauk denak, gure kontsumoko gizarte materialistak borrokatzen dizkigun baloreak dira.

Zer egin? Gizartearen bortzkeriari kontra nahi dugularik, gizonaren zapalkuntzari kontra nahi dugularik, zer eta nola egin? Gure defentsa guztia nuklearraren gainean oinharritzen zaigu, harmak eta gerla tresna moeta guztiak saltzen ditugu, Larzac-eko kaserna militarren zabaltzeko gobernuak 103 nekazari familia kanporatzen ditu, zentrale nuklearrak eraikitzen dira, nazio pobreak lapurtzen eta zapaltzen dira. Hauk denak, nire izenean egiten dira eta zure izenean.

Orduan, nik nahi dut nire oinharritzko zuzen baitezpadako bat eskatu: kontzientziaren askatasuna. Bakea ez dago beldurraren mehatxuan baina baizik, bakea justiziaren fruitua da. Arrazoi horiengatik atzera bidali diet neure harmadako papera.

—Eta orain zeren arriskutan zabilta?

—Maiatzaren hastapenean, Baionako tribunalera deituko naute. Eta nire gaztigua 3 edo 6 ureteren presondegia, 3 edo 5 urteren frantsestasunaren galtzea (bozkazina, etab.) eta diru zigor bat.

—Nola ikus edo asma zenezake gizarte berri bat?

—Gizonaren errespetuan oinharritzen den gizartea, kontzientziarena eta justizia gogor ez batetan. Gaztigurik eta mendekurik gabekoa (bortitzik ez behingoz). Askatasunaren eta kontzientziaren bortzarik gabekoa.

—Euskal aberriari dagokionez, Carriquiry jaunak erantzun dit "ez dakiela zer esan galdera horri" eta beronek "ez duela problema nazionalik sentitzen".

HAUTESKUNDEAK

Frantses hauteskundeak iragan dira eta berriz ere eskuinaren aztaparpean gabilta. Zer izanen dira datozkigun urteak? Batipat, zer itxaropen izanen ote dute euskarentzat, nekazariarentzat, langilearentzat eta euskal giroarentzat? Egia esan, frantses eskuina bera agertu zaigu euskaltzale (frantses-tasunean). Hain zuzen, aipatzen digu *"l'identité basque = euskal nortasuna"* eta zer derasa *R. P. R.* ak nortasun horretaz? Hona artikulu ofizial batetan zer esaten digun: "Euskal estaturik ez da inoiz izan, are gutiago, zer zorakeria estatu ezinago ttipiegia nahi izatea Europaren barnean". Baina *"le Pays des basques existe, leur langue et leur mœurs existent. Il s'agit de sauver ce patrimoine et de le PROMOUVOIR"*. Beraz, *R. P. R.* ak aitortzen du "Euskal Herri bat ba dagoela, euskal mintzaira eta ohiturak ba direla". Baldintza baitezpadakoa: helburu hauetara heltzeko aberastasun hau guztiau aurreratu egin behar da. Nola? Euskal izatea zabaldu eta azkartu beharrean egiten diren ekintza guztiak lagunduz: euskara erabili famulietan (telebistaren mai-

tasunarekin ez dakit nola irabaz daitekeen borroka hori?). Ondoren *R. P. R.* aren artikuluak ostikatzen eta akusatzen digu, ikastolen izate guztia politikoa dela esanez. Horregatik jendea mesfidatzen zaie eta horregatik hain zuzen gaur, geldi batean daude, ez aurrera ez atzera. "*Au R. P. R. nous EXIGONS que les ikastolas reprennent leur mission véritable...*" Hona harritzeko hitza "*EXIGONS*" ez dakit zer esku daukaten *R. P. R.* ekoek hitz horren erabiltzeko. Zer esku daukate ikastoletakoei agintzeko? Ez ahal dute eskua ixilixila egotekoa? Orain arte beren eginahal guztiak obratu dituztelarik ikastolak hiltzeko, zergatik nahi lukete gaur aginte bat ikastolaren irakaskuntzan? Gainera, gaur ikastolak geldi batean badira (hau ikastoletakoei esan behar lukete) noren faltaz dira kinka horretan? Ez ahal du eskuin guztiak eta batipat *R. P. R.* ak berak, euskalduntasunaren beldurra, arrazismoa inulkeria primerjo bat bera sarterazi jendeengan? Erraxegi dira horrelako arrazoiak, erraxegi Pilatusen irudira *R. P. R.* ak garbitzen ditu eskuak: beronek egin bekatu eta hobengabeak

hobenak! Funtsean, ez gaitezen harri, euskaldunok ba dakigu hau izan dela *R. P. R.* aren betiko jarrera, betiko tankera politikoa. Dena dela, gaur *R. P. R.* a dute frantsesek lehen frantses alderdia, orain agertuko digute eleak ele diren edo eleak obra bilakatuko diren? Euskaldunok segurik ez dugu ilusiorik, ba dakigu *R. P. R.* arentzat, Inchauspé, B. Maric eta abar... zer den euskal izatea: jende ttipiaren ezjakinaz ballatzea baizik hobekiago jateko. Ba dakigu ere *R. P. R.* arentzat zer diren herriarteko mugak, diruak ez baitu mugarik ezagutzen. Hots, ba ahal dago beste biderik euskal abertzaleena baizik, batipat, euskaldunen borrokarena? Benetako euskaldunen ustez, ez eta ez. Inork ez zigan agertuko euskararen arazorik, ez aberriaren arazorik. *EHAS* alderdi bakarra izan da aberri batuaren eta autonomiaren arazoa agertu dizkiguna. Hain zuzen, frantses sozialistek berdin baztertu dute abertzale-tasunaren politika arazo hau. Eta nola dateke bestela, ezen *GURE* arazoa baldin bada ez da haiena? Beharrezkoa zen beraz, *GEURE* arazoak *GEUK* aztertzea eta plazaratzea. Hau da autogestioaren lehen urratsa, *EHASek* *ENBATAren* ondortik beretu diguna.

NOLA BOZKATU DEN ETA HAUTESKUNDEEN AURREAN

Kanpainia edo hauteskundei lehen urratsa ematean oposizio bizi-biziak sortu zaizkie *EHAS* ekoiei. Talde batzuk, presentatu behar zuela eta beste batzuk ez. Hau zen eztabaidaren lehen arrazoa, hauteskundeek berek baieztatu dute abertzaleen presentzia, ez zegoen kanpoan egoterik. Bigarren arrazoa izan zen elkarrizketa ezin aurreratu batena. Noren faltaz? Hemen ez da lekua erruen bilatzekoa. Bakar bakarrik esanen dugu garrantzi gehiegi eman izan dela horrelako arazo estrategikoei. Ezen, hauk sukurtsalistentzat baitira baina inola ez populu zapalduarentzat. Bereizkuntza honetan kazetalariek ere daukate beren errua. Hala baina, zein masokismok bultzatzen gaitu diferentzien sakontzera eta elkar urratzera? Gainera, zein benetako arrazoiengatik sortu ziren bereizkuntzok? Pertsonen desberdintasunagatik, boterearen egarriagatik edo politika diferentziarengatik? Hona gaur argiki eta garbiki azaldu ez den gauza. Baina neure uste apalez eta zuhurtzia handirekin esan dezaket hiru arrazoi horik hirurak elkarrekin ezkondu, bateratu egin ditzakegula. Hau izan da zenbaitengandik hauteskunde denbora guztirako politika ezezko, negatibo baten bidetik jokatzea. Arrazoi



Hiru Euskaldun ala hiru frantses?
Ala hiru Euskaldun frantses?
Ba ahal dakigu nor garen?



Euskaltzale bozkatu du.

honengatik eta beste batzurengatik (ikus: Baigorri kooperatibak artikulua) baztertu ahal dira Baigorri-Garaziko gazteak hauteskunderen militantismo lanetik? Egiari bere bidea zor baitugu, hori da egia, bati-pat, Baigorriko gazteak apartatzen zaizkigula eta bizkitartean sakonki abertzale bozkaten.

BOZKATZEAK ETA ONDORIOAK

Xapelgoa eramaten digute mendialdeko herri batzuk: Zuberoan Barkoxe % 9, Lorraine % 21, Aldude

% 7 (Baigorriko kantonamenduan), Urepel % 8, Baigorri % 5 = 14 baliogabe eta 225, 137tan bozkatu ez dutenak. Garazi % 4, Esterenzubi % 6,5, Eiheralarre (Etxepareren herria) % 6, Ahatsa % 7,4. Donapaleu aldea: Pagola % 9,90, Donapaleu % 3,5, Berskoitze % 8,9, Ibarla % 19,40, Hazparne % 4, Iholdi % 6,8.

Euskal Herri barnean: 4,76 %. Kostaldean: 3,02 %. OROTARA 5.000 botz.

Dena dela, kantonamendu guztien aurrean dugu Aarrantze % 6,45, bigarren Iholdikoa % 6,10, hiruga-



Kontuen orduan Behe Nafarroko Herri etxean.

rrren Baigorrikoa % 5,31, laugarren Garazikoa % 4,27, eta azkena Maulle % 3,95. Kostaldean apalena dugu Miarritze % 1,86 eta goiena Uztaritze % 6,33.

Hauteskunde hauek agertu digute Euskal Herri barnea dugula euskaldunena. Giro hori azaldu dateke molde askotara, baina uste dut borroka orokor baten kontestuan sartu behar dugula. Bati-pat, nekazari gazteen borroka sindikalean, artzainen borrokan, lur saltza-penen aurkakoan, turismoaren eta ihizlarien aurkakoan. Beraz, giro berri hau murgiltzen zaigu sozialaren mailan, abertzaletasuna horretan da oinharritzen. Sustrai horik ikustea itxaropenezkoa zaigu, orain nabari baita nekazaria bera ohartuta dabilela, begiak irekirik. Jakina, asko dira oraindik itsu daudenak, bereziki zaharretan eta alderantziz gazteak heritik kanpo joaten. Baina lekuan daudenak eta beren herrian bizi nahi dutenak, hauk asko dira abertzaleak edo guttienez abertza-legoaren bidean. Abertzalegoaren maila honetan huts bat sentitzen eta ikusten dugula esan behar da eta hori da formazioarena, era askotara irakatsi behar datekeena. Hau behar beharrezko lehen puntua zaigu bazterte eta bazterkeria askoren mugatzeko. Gainera, nork uka errepuberazioaren arriskua, bati-pat frantses alderdiengandik.

Bozkataile zaharretan majoria bat izan da Inchauspéren alde bozkatu duenik. Bozkamolde hau ere azaldu dateke era askotara eta bati-pat seguritatearena da. Ba dakigu nola bozkataile asko zaharretan diren eta zaharra beldur, beldur bereziki bere zahar sosa galduko duela. Okerkeria litzateke beldurrean mugatzea bozka guztia, ezen bigarren arrazoa lehenaren pisu berdinekoa baita eta hori da errealtatearena, edo interesarena, edo oraino ondorioarena. Inchauspérentzat bozkatzek ondorioak baititu: eskatzen eta erdiesten! Hona zein diren nekazarien bozka arrazoiak.

Majoria honen bozketan dakusagu bi gauza direla: ezjakin sakon bat eta interes mugatua (bakoitzak beretzat bere lurraldirako). Eskas da interes kolektiboa. Hots, gaurko gure arazoak izan behar luke: bere indarraren ondorioaz nola desjabetu Inchauspé jauna? Nola desjabetu ekonomi indar berri bat sartu gabe? Dena, maila guztietako independentziaren giltza da: Hegoaldearen egin beharra nabari da. Hauk abertzaleen hauteskundeak ziren eta aberri bat baizik ez dago. Euskaldun bakoitzaren egitekoa eta guztiena jakina, baina aberri bakar baten hauteskundeak.



LEKEITIOKO HERRI KANDIDATURAREN ESPERIENTZIA



Herriaren interesen kandidatura.

1977.eko uda inguruan Euskal Parlamentarien Batzarreak, Udal Gorporazioen dimisioa eskatu zuenean, haien ordez Udal Gestioileak ezarri nahiz, Lekeition, Lea-Artibai eskualdeko herri batetan, giro berezi bat sortzen hasten da udalari, herri problematikari bergira.

Herriko alderdi "erreprezentatzaileak" PNV, UCD, PSOE, ekainaren 15eko Hauteskunde Orokor sasidemokratikoen ondorioak agertarazi nahi dituzte udaletxeetan, Udal Hauteskundeen eremua jadanik lantzen hasteko; beraz, berauen intentzioak ez ziren herriaren aldekoak, guztiz partidistak baizik. Nolabait, dinamika hau geldiarazteko eta Udal Hauteskundeak ospatu arte udalen kontrol zehatza egin zedin eta denok ezagutzen ditugun lurren espekulaketak, hauzategien hondatzeak, e. a. gerta ez zitezten, kontrol batzordeak sorten hasten dira Euskal Herriko Lekeitio ez dago lotan.

Mila oztopo gainditurik, PNV kontra zelarik, Kontrol Batzordea sortzen da. Bitartean

UCDren gobernuaren promesak ez dira betetzen, 1977. urtea amaituz doa, eta bitartean ba dirudi Parlamentuan, Udal Hauteskundeak konbokatzea baino, beste gauza garrantzitsuagorik ba daudela, Moncloako hitzarmena izenpetu, Vascongadaseko Aurreautonomia instituzionalizatu, e. a. Atzeramendu honek Kontrol Batzordearen makaldura dakar eta giro honetan aztertu behar da "Herri Kandidaturaren" jaiotza.

HERRI KANDIDATURA: SORRERA ETA HELBURUAK

Kontrol Batzordeak, urte honetako urtarrilean bere egoera kritikatu, eta Udal Hauteskundeak hurbiltzen zetozkigularik, "Herri Kandidatura" sortzeko premia azaltzen dio herri asanbladari, eta beronek horrela onhartu. Orduan, agertzen da, egun ia finkaturik dagoen kandidatura. Eztabaida luze baten ondoren honela finkatzen ditugu geure helburuak:

1. Lekeitioko herri arazo guztiei erantzungo dien kandidatura bat aurkeztea. Bestalde, oso argi zegoen guretzat, autogobernuari begira, instituzio politiko bezala, Udalak edukiko duen garrantzia, eta egoki

genekusan, beraz, Estatuaren arazoa ere gure alternatibarako kontutan hartzea.

2. Udaletan dirauten lege frankisten deuseztatzea gogor eskatzea, herriaren parte hartze zuzena eta demokratikoa bultzatuz.
3. Euskararen erabilkuntzari alternatiba bat eskaintzea. Puntu honi inportantzia handia eman zaio eta horretarako, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak Udal hauteskundeetarako prestaturiko alternatiba onhartu da (ikus ANAITASUNA 358/359. 68 hor.).

UDAL ESKUHARMENERAKO PROGRAMA

Programa hau egiteko, oraindik irauten duen "Ley de Bases de Régimen Local" izeneko legean oinarritu behar ukan dugu. Lege hau, noski, frankista da, Franco hilzorian zegoela, Juan Carlosen oneritziaz kaleratua. Dena dela, funtsezkoa iruditzen zaigu herri beharizanen balantzea egiteko. Ondokoak dira programaren linea nagusiak:

| | |
|---------------|--|
| HIRIGINTZA: | Lurren ordenaketa eta hirigintza. |
| IRAKASKUNTZA: | Hezkuntza eta kultura. |
| SANITATEA: | Inguru giroaren defentsa eta kontserbaketa. Hilherria. Sanitate eta higiena. Abastu eta azokak. |
| LANPOSTUAK: | Lanpostuak sortzea. Komunikabideak eta garraioa. |
| JUBILATUAK: | Laguntza zerbitzua. |
| GAZTERIA: | Kirolak eta aisialdia. |
| HIZKUNTZA: | Euskararen alternatiba herrirako. |
| POLITIKA: | Administratib-technik funtzionamendua. Hertzaintza. Herri gestio zuzena. Autogobernurako alternatiba. |

BARRU FUNTZIONAMENDU DINAMIKOA

Gure enbryoi alternatiban erakusten genuenez, "Herri Kandidatura" asanbladaren dinamizazio bultzatzen da. Lanak koordinatu eta arintzeko eta indarrak alfe-

rrik ez galtzeko, "lan batzordeak" sortu dira, osakideak asanbladan aukeratuak izanik. Batzordeak hauek dira: Udal Kontrola, Udal alternatiba, Teknika eta lege arazoena, Ekonomia eta Kandidatura batzordea.

Hau guztia koordinatzeko.

astero batzarten den "Herri Kandidaturaren koordinatzailea" izendatu zen. Eta azkenik, muntai guztia mugiarazteko lau "akulari" edo zuzpertzaille. Barru funtzionamenduko nolabaiteko arau batzu onhartu genituen, eta poliki poliki aurrera goaz proiektuarekin.

ALDERDI POLITIKOEN LANA "HERRI KANDIDATURA"

Beste herrietan legez, Lekeition ere ba ditugu alderdi politikoak. Alde batetan, eskuinean historiaz hornituriko PNV eta beste aldean, ezkerrean, EIA, ESB, LKI eta HASI. Lehena estrainatzekoa ez dena, ekainaren 15ean hartu zuen beroaldia oraindik hoztu gabe izanik, bakarrik joanen da Udal Hauteskundeetara, eta beste guztiek oso osoan bultzatzen dituzte batean herri kandidaturaren proiektu eta asmoak.

Hasieran ba ziren hauen kontra azaldu zirenak ere, baina praxisak erakutsi digu, alderdikeriak, agintekeriak eta beste horrelako zenbait bizio alde batera utziz gero, hauek ere ba dutela zer esan eta zer egin herriarekin eta herriarentzat.

MEMENTUA AZTERTZEN

1978.eko apirila pasatu zaigu, promesak 1977.etik datozkigu, eta gu hemen. Ba dirudi, alderdi majoritari demokratikoen onepenez, Udal Hauteskundeak urri-rarte ez ditugula ikusiko. Bitartean, horra hor nola udalen hutsunea sakonduz doan denbora pasatu ala, obra publikoetan, hirien oinagituran, hauzategien ekipamenduan, osasun zerbitzuetan, ekologian, irakaskuntzan eta abarretan ikus daitekeen bezala.

Bestalde frankismoaren garai-ko udalek eta diputazioek zutik diraute eta burokrazia frankistaren habia bihurtzen ari dira.

Argi dagoenez, luzamendu hau guztiz apropos eginik dago, denbora honetan, hain txapeldun sentitzen diren alderdiek, herrietan beren oinarriak finka ditza-ten eta, batez ere, hain kilikolo dauden euskal herrietan.

Egoera nazkagarri honi, erantzuna emateko zerbait pentsatzen ari gara, baina giroak berak osotasun batean laguntzen ez badigu, 8.000 biztanle dituen herri baten ahaleginak alferrikoak izanen dira. Hemen ere gure "errepresentatzaileek" ba dute zer esan. Noizko?



150 bonba botatzen dituzte Nafarroako Bardenasetan

AMERIKANOEK EUSKADI BONBARDEATZEN EGUNERO

Egunero, 150 bonba botatzen dituzte amerikanoek Nafarroako Bardenas parajeetan. Europa guztiko baseetatik etortzen dira hegazkinak Bardenasko tiro lekura.

Bardenas Erriberan dago, Tuteratik 20 kilometrotara, eta Espainol harmadak errentan dauka. Oso leku igorra da, baina gaurregun, erregadioen bidez fertil bihur daiteke. Hori nahi dute nekazariak, baina interes asko dago tartean, eta amerikanoei interesatzen zaie terreno hori.

1951. urtean errentan hartu zuen espainol harmadak eta orduan hasi ziren tiro leku hau erabil-

tzen. Hasieran, espainol hegazkinak bakarrik ibiltzen ziren bonbak botatzen. Hamabost egunetik hamabost egunera etortzen ziren. Kasik denbora berean, amerikanoak hasi ziren.

Orain, egunero egiten dituzte tiro praktikak, goizeko zortzietatik arratsaldeko bostak arte. Larunbatetan eta igandetan bakarrik ez dituzte praktikak egiten.

Azken aldian, aleman eta frantsez hegazkinak ere ibili dira bonbardeo praktikak egiten Bardenasetan. Jende askok uste du, denborarekin, OTAN osoak erabiliko duela Euskadiko zona hau bonbak

botatzeko. Eta ba dirudi inor ez dela kezkatzen hortaz. Partidu politikoek ez dute ezer esaten.

Eta Nafarroako Bardenas ere Euskadi da!

Lehen esan dudan bezala, 150 bonba botatzen dituzte egunero eta 30 hegazkin paseiatzen dira.

1951. urteko ekainean errentan hartu zuen harmadak, esan dudan bezala, eta kontratua hogeitabost urtetarako zen. Ihaz, kontratua bukatu zenean, harmadak berriro zuen beste hogeitabost urtetarako.

Lehen, tiro leku hau ongi zegoen eta aski terreno zen hegazkinentzat. Baina kontu horrek ez du balio gaurregun. Orain hegazkinak oso azkarrak dira eta espazio gehiago behar dute maniobratzeko. Horrengatik, istripuak gertatzeko arriskua handia da. Eta gainera, gertatu dira.


Azken hamar urteotan hamar hegazkin estreilatuta dira, eta batzu herrietatik hurbil. Arguedasko bizilagun bat hil zen bonba lehertu gabe baten kausagatik. 1972.ean, bi hegazkinek elkar txokatu zuten airean eta burdinak lurrera erori zirenean, etxe batzuk su hartu zuten. Horrengatik, lau pertsona hil ziren. Eta horrela kasu asko dago. Adibidez, ihaz ere Phantom erreaktore bat estreilatuta zen. Urtero, bi hegazkin estreilatzen dira.

Baina ez dugu pentsatu behar "suceso" hori Vietnamen gertatzen denik. Nafarroan gertatzen da. Nafarroako Erriberan gertatzen da.

Nekazariak arregatu nahi dute eta fruitua kendu nahi diote lurrari, baina ez dute agintzen beren lurretan. Harmadak baitauzka arrendatuta.

Gainera, orain, Caparrosoko oiloak arraultze guttiago ipintzen hasi dira. Egia da. Granjetako oiloek arraultze guttiago ipintzen dute. Jendeak uste du, hegazkinen zalapartarengatik dela. Ni ere zihur nago.

Iñaki Zabaleta



Hauxek dituzte bardeetako erantzule ageriak: Nafarroako Diputazio Forala.

HIZTEGIA

igorra = yermo.

azken aldian = en los últimos tiempos.

badirudi = parece.

kezkatu = preocuparse.

istripu = accidente.

bizilagun = habitante.

agindu = mandar.

baitauzka = ya que tiene..., pues tiene...

MILA KONTU

KONTZIERTO A DANTZATU NAHI AL DUZU GOBERNUAREKIN?



Voulez vous dancer avec moi? dantzatu nahi al duzu kontzieto bat nirekin? Espainiako ordezkaria Eurovisionen Jose Velez izan zen. "Con garra española" defendatu zuen kanariar honek espainol pabe-llonia, zortzigarrena atera zezan arren.

Eta Zarzallus. PNVko diputatua, dantzaren alde atera zaigu. "Kartak hautsiko ditugu, kontzieto ekonomikoak ez baldin badizkigu bueltatzen gobernuak", esan zuen.

Bai Jauna bai! Kontzieto ez baldin badute nahi, berdin da musikala edo ekonomikoa, kartak eta biolinak hautsiko ditugu gobernuaren gainean. Voulez vous dancer avec moi, monsieur Arzallus? Gobernu alua baita! Makina bat alditan bibolina astindu eta ukitu digu euskaldunoi eta orain ez digu kontzietorik eman nahi. Ba... PNVk kartak hausten baldin baditu, guk bibolina hautsiko dugu, eta ea orduan nork fekundatzen duen euskal andrea... amorantea... kastidadearen altxorra.

Zorionez, Carrillo eta "la Pasionaria" birhautatu dituzte PCEko (Partido Con Espiritu) sekretario eta presidente bezala. Goraintziak eta agurrik beroenak. Datorren urteko aste santuan, Pasioaren Via Crucisa ferbore handirekin egiteko asmoa dut. Eta Kristok esan zuen bezala: "si hay que poner el otro carrillo, se pone, que para eso ha sido elegido e nuevo juntamente que con la pasión vehemente de la pasionaria".

Eta Suarez Canariasa joan zén ebangelioa errepartitzera. Honek ez du via crucisik egingo, baina promesen ebangelioa ikasi zuen eta orain horretan dabil. EGINen zetorren bezala, hura eta Martin Villa otoitz egiten aritu ziren Kandelaria Ama Birgiñaren Basilikan.

"Canariasen espainolitatea dudaz kanpo dago", esan zuen. Agian, problemaren barrenean dagoela esan nahi du. Eta badaezpada ere, goi mailako politika eginez, Jose Velez hautatu zuten Espainiako ordezkari bezala Eurovisionen. Beste aldetik, Oreja jauna Afrikanoak konbertitzen ibili zen. Hori baita goi mailako politika egitea! A ritmo de vals...

Baina hala ere euskaldunok lasai egon behar dugu: Kubalak 12 futbolari euskaldun bereizi ditu mundialetarako. Horiek ere, Jose Velezen kasuan bezala, goi mailako politika egingo dute Espainiako ekipoan. Dena kalkulatu baitago Flannagan! Eta euskal futbolariak greba de piernas paradaz egiten baldin badute?

Bukatzeko, Aldalurren kasua aipatu nahi dut. Bromak eta txantxetak alde batera utziz, erne egon gaitezen gertaera honekin. Aspaldidanik argi zegoen frantsez poliziaren eta espainol poliziaren arteko harremana, baina orain roskaz, pasatu dira. Horretarako ez da eskubiderik! Ginebrako konbentzioa eta giza eskubide guztiak hankaperatu dituzte. Gu, aldiz, hain lasai gelditu gara... beldur ematen didala atzerriatuen seguritateak.

Hau zakurren mundua!

Iosü Alezuri

HIZTEGIA

atera zezan arren = aunque sacara.
astindu = sacudir.
birhautatu = reelegir.
goraintziak = recuerdos.
gertaera = suceso.

GIPUZKOAKO METALE KOMENIOA



Donostian. Ezetza Moncloako paktuari.

Metaleko Komenio honen gorabeherak eta ondorioak ongi ezagutzeko, bere martxan agertu diren jokabide batzu aztertzea komeni da.

Hain zuzen ere, 1977.eko uztailean sinatu zen Gipuzkoako Komenioak lau puntu azpimarratu zituen bereziki:

1) Negoziaketarako mahaiaren eraketa alde bitakoa izan zen, halegia, entresetako batzorde ordezkariek eta sindikatuen ordezkariek, eta fabriketako eritziari jarraikiz alde biak eskubide berdinez.

2) Alokairuen goraldiak bizibideko kostearen neurrian ezartzen ziren, eta hiru hilabetero berritzez.

3) Mahaia 1978.ari begira Komenioa abenduan berriro negoziatzera konprometatzen zen.

4) Entresetako asanbladak onhartzen ziren.

AURTENGO MAHAIAREN EGITURA

Ihazko komenioaren eta aurtengo mahaia eratu arteko bitarte honetan garrantzizko gertaerak sortu dira:

— Moncloako Ituna.

— Sindikal hauteskundeak eta sindikalgintza berria.

Sindikatuen arteko norgehiagoka ta lehiaketa biziak gorabehera, abenduan ez zen deus egin, eta martxoan mahaia oraindik eratu gabe aurkitzen



Donostia. Lehenengo "internazionala" euskaraz.

zen, CC.OO., U.G.T. ta ELA sindikatu erreformistak agertu ziren irabazle eta Monkloako Ituna langileon gain ezarri beharrez. Gauzak horrela, mahaia eratzeko hiru jarrera agertzen dira:

— ELA sindikatuak Monkloako Ituna salhatzen badu ere komenio probintzialarekin ez du deus ere jakin nahi, entresako komenioaren alde jartzen baita, eta mahaian entresaketako batzorde ordezkarien parte hartzearen kontrakoa da.

— CC.OO. eta U.G.T. sindikatuak begi onez ikustatu zuten ELAekin batera mahai hitxi bat eratzea, baina azkenekoak probintzi mailako mahaikide izatea ukatu zuten. Guzti horien jokoa nabarmen geratu da, mahaiko sindikalgintzatik sin-

dikatu txikiak bazterreratu nahia, Monkloako Ituna ezarri eta entresaketako ordezkariak gaitzetsi.

— LAB, LSB-USO, SU, CSUT eta entresaketako batzorde ordezkariak, berriz, azkeneko horiek Mahaian sartzearen alde ekiten diote, langileen alokairu beharkizunak bete, eta Monkloako Itunaren kontra, nolana ere.

Hiruretako inork ez du patronalarekin komenioa eratzeko indarririk. ELA mahaitik kanpo geratuz gero, CC.OO. eta U.G.T. entresaketako batzorde ordezkariak onhartu beharrez aurkitzen dira, baina baldintzapetuta, hau da, mahaiaren eta entresaketako asanbladaren bitarteko eta mandatari bezala bakarrik, boza bai baina boturik ez baitute. Entresaketako batzorde ordezkariak, beraz, nahiko baldintzatuak geratzen dira, sindikalgintzako legeak murriztuak, eta CC.OO. eta U.G.T. sindikatuak menpe.

Azkenik Mahaia honela egituratzen da: 4 UGT, 4 CC.OO., 1 LAB, 1 USO, 1 SU, 1 CSUT eta entresaketako koordinakuntza probintzian hautatutako bi ordezkari, bozarekin baina boturik gabe.

ELA erabat kanpo geratzean, patronalak ez du ELArik gabeko mahairik onhartu nahi, jarrera honek ELA ta ADEGUIren arteko barne loturak nabarmenduz. Langileek, ordea, asanbladak, geldialdiak eta egundoko mobilizapenak muntatzen dituzte, patronala amore ematera behartuz. ELA ez beste indar sindikal orok gauza guztien gainetik langileriaren ekintza baterakoia bultzatzen dute, eta probintzi mailako koordinakuntzaz bultzatu ere

NEGOZIAKETARAKO GORABEHERAK

Langile mahaia bizitza mailaren gorakadar oinharritutako ekonomi plataforma bat presentatzen du. Patronalak, ordea, lehengoaren puntaertzeko txosten batez erantzuten du. Monkloako Itunari helduz. Ez dago konponketa biderik, eta mahaia proposatuta grebari hasera ematen zaio. Berehala entresak guztiak gelditu eta abiada



...anarkistak saltsan. PNV zela eta ez zela. Nork zuen errua?



Bilbon Maiatzaren leheneko manifestazioa.

bizian zabaltzen dira langile mobilizapenak. Langile mugimendua entepresetako asanbladetatik abiatuz, eta bailaretako koordinakuntza bidez Gipuzkoa osora hedatzen da. Mahaia, berriz, (CC.OO. eta UGT, batipat) langile asanbladek eta mobilizapenek, erabat gainditua aurkitzen da. Greba sendotuz doan bitartean, ordea, ez da irtenbiderik ikusten. Eta bitarteko bat bilakatzen da. Honen proposamena, ordea, guztiz murriztua eta Monkloako Itunari lotua agertzean, proposamenaren kontra jartzen da Gipuzkoako asanblada koordinakuntza osoa.

Hala ta guztiz ere, CC.OO. eta UGT, langile mugimenduak gaindituta nabaritzean, langileak lanera itzultzeko ahaleginduko dira. Zer gertatu da Sindikatuek ez zuten langileen aldetik halako erantzunik uste, eta demagogia bideak beren kontra itzuli zaizkie. Azkeneko eskaintza, % 5 urtarrilean (2.000 pezeta, halebria), eta uztailean beste hainbeste eta % 3 gehiagokoa izan zen, Monkloako Itunaren goren hortxe hortxe gáinditzen duelarik. Aipaturiko bi sindikatu majoritariék haseran jendea kalera atera bazuten, orain nolana ere lanbideratu beharrez ekitean, nahasturik geratu zen langileria. Delako azken eskaintza hori onhartu bai, onhartu ez, zenbait entepresa eta bailaretan gehien batek ezezkoa eman zuen, beste batzutan baiezkoa, berriz. Mahaiko zenbaki ofizialak diotenez, 24.000 langileek eman zuten lanera itzultzeko botua eta 23.000 langileek greban jarraitzekoa. Zenbaitek diotenez zenbaki horik manipulatuak ere izan omen dira, baina ez dugu honetan sartu nahi. Dena dela, langileak egun pare bat gorabehera lanera itzultzen dira, tartean CC.OO. eta UGT sindikatuengandiko saldukeria eta manipulaketak salhatuz. Hor datza Errenderiko eta Eibarko sindikatu xedeetan eta zenbait karneten erreketak lekuko.

KOMENIOARI BURUZKO BALORAPENAK

– Fabriketako asanbladak eta komiteak sendotzen dira, bailarako eta herrialdeko oinharri koordinakuntza indartuz. Langile mugimenduak gainditua geratu baita Mahai Negoziatzailea.

– Langileriaren ekintza eta burruka baterakoia.

– ELAk langileriaren batasunari eginikako saldukeria.

– Monkloako Itunaren kontra.

– SU eta CSUT. Ez dute mahaiarekin lanegin. Kliente berriak erakartzeko ezkerkeriazko eta demagogiazko jarrera batez mahaiko erabaki edo proposamen oro bazterreratu dituzte, baina asanbladak nahastea besterik ez dute lortu.

– USÓ: CC.OO. eta UGTren jarraitzaile.

– CNT: Ez du deusetan parte hartzen, ez hauteskundeetan, ez mahaietan, ez entepresetako batzorde ordezkarietan. Bere jarrera une oro salhatzea izan da, bat ere alternatibarik presentatu gabe.

– LAB: Experientzia eza. Haseran mahaiaren jarraitzaile, baina gero, jarrera nabarmena hartu du langile asanblada eta honen batzorde ordezkariak defendatuz.

– CC.OO. eta UGT: Nahiko nabarmen geratu da bi sindikatu majoritarien jarrera. Lehendik ere ezagutzen genuen asanbladaren eta batzorde ordezkarien kontrako UGTren jarrera, ez horrela CC.OO.koena. Areago, sindikatu honetan ezker iraultzaile omen direnak ere entepresetako ordezkariak gaitzetsi beharrez aritu dira. Aurrerakoan badakigu, beraz, norekin gabiltzan, hitzetan ez baina egintzetan ezagutzen baikara gizonak eta erakundeak. CC.OO. osoa guztiz erreformista bilakatu da.

EUSKAL HERRIAREN EGUNA

Historian zehar euskaldunok ezagutu eta erazagutu dugun egunik sonatuenetako bat, 878.eko agorrilaren 15ekoa izan zen, gure asabek, beren Herria zapaltzera etorri zitzaizen *Karol Haundiaren* armadari, Orreagan, porrotaren zapore mingotsa dastarazi zioteneko.

Egite famatua benetan. Karol Haundiaren hospea European zehar oso urrun heldua zen. Eslaviarrek, kasu, haren izenetik hartua dute gaur ere "errege" esateko duten hitza (*korol, kiral,*

karoly..., lehenago *Caesar*-enetik germaniarrek egin zuten bezala (Kaiser). Euskaldunok ere ba dugu, horregatik, geure hiztegian haren zantzoa. *Roland, Karol Haundiaren* lobatzakoaren izenetik, kasu, hortxe dugu *erraldoi* hitza, gizon haundia adierazteko. Geuk beste munduratu genuenari egindako azken ohorea!

Orreagako burruka gaitzat harturik, Frantzia *la chanson de Roland* sortu zen, Erdi Haroko epikaren lehen obra European, eta geroago, beroni zerraiolarik, Gaztelan *el cantar de Mio Cid* agertuko zen.

Mundu zabalean sorterazitako oihartzunoz gainera, Orreaga aspaldidanik euskaldunontzat simbolo bat izan da; egun oso gogoangarria. Ez da kasualitatea, nik uste, XVII mendean Oihenarte zuberotarrak bere historian hartaz aipamen berezia egitea, XVIIIlean *Joanes Etxeberri* Sarakoak hura gogoratzea, eta joan mendetik *Xahok, Kampionek* eta *Hiribarrenek*, nork bere erara, Orreagaren gomuta ekartzea.

Orreagakoa gertatu zenean gure nazioak ez zuen oraindik bere askatasuna galdurik. Pirinioen alde bietan hedaturik bizi zen, bere batasunaz kontzientzia argia zuelarik. Orduan ez zegoen *Pirinioetan* mugarik, eta euskaldun guztien mintzabide komuna euskara zen. Eta aldi hartan, bat sentitzen zirelako, libre sentitzen zirelako, euskaldun guztiek beren burujabetasunaren alde burrukatu zuten elkarrekin frant-

ses tropen kontra. Eta harez gero, mundu guztiak gogoratuko zuen egun hori. Ba da hor, nik uste, mami eta arrazoi asko euskaldunok geure begiak Orreagantantz berritzul ditzagun.

Aberri Eguna beste giro batean sortu zen, egia da, eta bere ukaezinezko funtzioa gehienetan ongi bete badu ere, ba ditu hala ere akats ugariak, lehenbailehen zuzendu beharrekoak. Alde batek bere sorkuratik datorkion klerikalismop anakronikoa. Izan ere, asko oraindik horretaz konturatu ez badira ere, absurdua da geure nazioa ospatzeko eguna Elizaren egutegi erligiosoaren arauera erabakitzea. Jai hiritar baterako, hobe da, eta komenigarriagoa ere bai, egun laiko bat jartzea. Bestetik Aberri Egunean ia beti alderdikeria nabari izan da nola edo hala: Aberri Eguna PNVek sortua izan zela eta, alderdi horrek maiz egun hori *non* ospatu behar den erabakitzea bere monopolioztat erabili digu luzaro, herri batasunaren kaltean. Hirugarrenik, hor dago Ipar Euskal Herriaren baztertze lotsagarria, aurten, konbokatotariak Hego alderako ez beste egitean, inoiz baino mingarriagorik agertua. Azkenik, data biak opor egunetan direla kontutan harturik, Agorrilekoa, eguraldi hobe posibleagoa dela eta, jendea biltzeko egokiagoa litzateke.

Esandakoengatik, Orreagak ez duke holako eragozpenik, eta bai abantail asko: tokia eta eguna beti berak lirateke, eta euskaldunon egitada politiko batzailen baten inguruan egin litzateke, inolako erligio edo alderdikeri kutsurik gabe, edozein pertsonak onhartzeko eguna beraz.

Batak, ordea, ez du zertan bestea zokoratu behar, eta, izan ere, askoz hobe litzateke bi-biek irautea. Izan ere, urteak egun asko dauzka eta norbere Herriaren egoera eta nazional problematikaz gogoratzeko, agian, ez letozkiguke batere gaizki bi egun ere izatea. *Aberri Eguna* eta *Herriaren Eguna*.

Aurten, agorrilaren 5ean, muga bertan, alde bateko eta besteko euskaldunok geure Herriaren Eguna ospatuko dugu hortaz. Agian laster tradiziozkoa izanen den nebarrebarreko elkartze bati emanen diogu hasiera.



MAIATZAREN LEHENEKO HERTZAINEZ

“Eta gero, hortxe dituk “ertzainak”. Greba bat hasten den une berean, bertan diaudek. Tiroak ere egoten dituk sarritan. Ba diakiat ez duala berau hain erraxki sinetsiko, hire denbora kroniko delako horretan honelakorik gertatzen ez datekeelako, baina egiá duk.

—Ez, ez, ene denboran zoriontsuak gaituk. Ez diagu horrelako bidegaberik bat ere ezagutzen, burkide.

—Ni neu, baltzakerizale naizela eta, bost bider eraman niauate bertara. Presondegia gozoa duk, to! galdeketan parean; baheki! Huraxe duk sufrikarioa! Ez haizela euskaldun diotsate, kanpotar ideiekin kutsatua haizela, putaseme bat haizela, Euzkadi ez duala maite, eta ez diakiat nori saldu nahi dioala... eta jo eta ke, kolpe hemen eta kolpe han”.

X. Kintanak, U'kronian, 1972.

Maiatzaren lehenak Bilbaon gertaera triste batzu ikusi behar ukan ditu, PNVeke eta zenbait “anarkista” artean gertatuak. Dakigunez, PNVeakoak, lehenik ere Aberri Egunean egin zuten bezalaxerik, manifestaldirako jarrita zegoen bidetik irten ziren, Sabin Etxera joateko asmoz. Hori ikustean, lagun batzuk —diotenez, “anarkistak” (?)— manifestaldiaren batasuna puskatzea aurpegiratu zieten, eskirolak, etab. deituz.

Honaino ez dago ezer harritzekorik. PNVeakoek Sabin Etxera peregrinazioak noiznahi egiteko eskubidea baldin badute, besteek ere eskubide berbera dukete, akordioak hautsi dituztela eta, horregatik zer pentsatzen duten adierazteko. Eta inork ez dezala esan kritika merezia ez zutenik!

Baina harrigarriena zera izan zen, PNVeke bere ordenu zerbitzu propioa prestik eraman zuela —egiteko asmo zuenak protestak haizatuko zituelako beldurraz ez ote?— *hertzainak* (=“poliziak”) izenaz eta guzti. Eta kaikudun poliziok, beren kontutik, demokrazi biderik jatorrean eta alderdiaren bedeinkaziopean, oraintsu arteko ordenu indarrek bezain trebeki bete zuten beren egitekoa, kolpeak, ostikoak eta abar oparo eta abertzalero banatuz.

Errudunak eta egur emaille bakarrak, noski, ez ziren *hertzainak*, baina hasierako probokatzailak bai behintzat. Izan ere, holako manifestaldi batetan probokazioa baita guztien bidetik nabariki irtetean egin zutena. Ez baitigute esango Sabino Aranak maiatzaren lehenarekin zer ikusi handirik duenik. Bestetik, bere jendea besteen poliziatzat daraman talde batek ba dirudi besteez mesfidatzen dela, eta horrexegatik berorrexegatik arrazoia dute besteek hartaz mesfidatzeko.

Duela sei urte, 1972.ean, Kintanaren ipuin batetan goiko pasartea irakur zitekeen. Holako buruberokeria espainolismoaren seinale gertutzat jo zuten batzuk orduan. Baina orain geure kaleetan euskaldunek euskaldunoi *españoles kanpora* entzun behar ukan dugu eta kolpeak kaikudunengandik jaso. Eta hori, ondo pentsa, hertzain horik inkontrolatuak eta ezofizialak izanik! Geroago, ofizialak gerta daitezenean, bide beretik segituz gero behintzat, etor dakigukeenaren abisu ederra.

Inor ez duk profeta bere Herrian, Xabier. Profetek egia latzak aldez aurretik iragartzen eta salatzen dituztelako, eta jendeak, ikusi arte —eta maiz ikusi arren ere— ez dik holakorik sinetsi nahi. Oraingoan bezala.

Baina nork daki! Agian Lemoizeko zentrale inguruan, uranioa zaintzen, kaikuaz edo kaiku gabe, ikusiko ditugunean, jadanik beranduegi izango denean... orduan, ba liteke...

Nafarroako Kadreitako herrian feudalismoa nagusi



Hau da Dukesen etxea. Dukesa hil zen, baina herederoak ere aristokratikoak dira. Madrilen bizi dira. Bitartean, Kadreitako herria eta lurak horienak dira eta feudalismoa praktikatzen dute.

Kadreitako herria Nafarroako *Erriberan* dago. Bi mila bizilagun ditu eta nekazaritzatik bizi da. Baina lurak ez dira harenak, *Albuquerque dukal etxaldearenak* baizik. 2.700 hektarea bi miloi ta erdi pezetatan baloratua dauka kontribuzio gutti pagatzeko, eta orain zatika saldu nahi die herriko nekazariei mila miloi pezeta irabazteko. Jendeak hori ez du nahi. "Dena erosi nahi dugu, gurasoek eta semeek ez dezaten emigra, eta bertan bizibidea ukan dezagun" diote.

Orain, *Kadreitako* bitan zatitua aurkitzen da: batetik alkatea, jauntxoak, dukal etxaldea, Diputazioa eta Gobernua; bestetik herriko gehiengoak.

Gainera udalaren fraudeak agertzen ari dira, urte askotan ezkutan egon ondoren.

Eta *Kadreitako* nekazari gehienek errentan dituzte lurak, lur guztiak eta etxe gehienak. Hitz batez: Erdi Haroan bezala daude, beharturik. Urik ere ez dute lurak arregatzeko, eta lapurtu beharrean aurkitzen dira.



Artzainek ere ez dute non larretu ardiak. Honek ere kontribuzioak pagatu behar ditu. Dukal Etxaldeak miloi erdi bat pagatzen du, 60 % lur eta etxe bereak izanik. Nekazariak, berriz, sei miloi ta erdi pagatzen dituzte. Feudalismoa Nafarroako Erriberan.

Erdi Haroan bezala

Nafarroako herri bat XV mendean bezala dauka menderatua Dukal Etxalde batek. *Albuquerque* Dukal Etxaldeak agintzen du Kadreita herrian.

la Kadreita osoa dukesaren familia-rena da: etxeak eta lurak. Baina iritsi da Erdi Haroa baztertzeke garaia. Erdi Haroan bizi direla esan baitezakegu.

Fernando el Católico erregearen urteetan bereganatu omen zuen *Albuquerque* familiak lurralde hori. Nafarroa konkistatua izan zen XVI mendean, Kadreitako lurralde hori oso idorra

omen zen. Gero urtez urte, eta mendez mende, jendea biltzen hasi omen zen herrikka bat osatu arte.

Baina *Albuquerque* Etxaldearen eremuetan zeuden, eta familiek ez zuten bererik. Dena Dukal etxearena zen, orain den bezala. Horrela, errentan hartu zituzten lurak eta bizitzen hasi ziren.

Idorra zen lurra eta dukesaren bihotza. "Los siervos y la plebe" hitzak anti-gualak iduritzen zaizkigu, baina gaurrengungo aristokratek ez dituzte ahantzi oraindik.

Eta horrela hasi zen herri dominatu baten historia.

XX mendea bukatzen ari garenean, Nafarroako herri bat XVI mendean bezala aurkitzen da. Ia inork ez du bere lurrik, nekazal lanetarako, eta duenak Dukesari erosi berria dio.

Euskadin mementu honetan ikusten ari garen burrukarik ederrenetakoa Kadreitakoa da. Dukal Etxaldeari nekazal lur guztiak erosi nahi dizkio herriak, baina aristokrazia eta jauntxoak eta Nafarroako Diputazioa eta *UCD* eta gobernua biltzen direnean, otsoen zuloa egiten dute beren artean, jende pobreaki eskubiderik ez aitortzeko.

Eta gudu gogorra ari da libratzen *Kadreita, Irunetik Tuterarantz* 70 kilometrotara dagoen herria.

Aristokraziaren azken hostikadak

"Herri osoa eta lurak erosi nahi ditugu, ez gurasoek ez semeek ez dezaten emigra" mila alditan errepika zidaten igande hartan Kadreitako bizilagunek. "...Ez gurasoek ez semeek ez dezaten emigra, eta hemen bertan ukan dezaten bizitzeko lanpidea".

"... Hemen ukan dezagun bizitzeko lanpidea, erosi nahi dizkiogu Dukal Etxaldeari herria eta lur guztiak". Eta berriz mila alditan errepikatzen zidaten gauza berbera. Hori baita haien xedea.

Kadreitak hiru mila bizilagun ditu eta gehienak nekazaritzatik bizi dira. Hala ere badira hiru kontserba fabrika eta haltzariak egiteko beste bat. Ardiak eta artzainak ez dira falta.


Orain dela hiru urte, *Albuquerque* dukesaren herederok, errentan utziak zeuzkaten lurak saltzea pentsatu zuten, eta tratuak aurrera eramateko komisio bat sortu zen Kadreitan.

Baina, zoritxarrez, bertako jauntxoek izendatu zuten komisio hori. Hor zeuden alkatea eta bere konpartsak, hor lur gehien erabiltzen zituen maizterrak. Elkarrekin bezain ongi konpontzen ziren dukesaren herederokin.

Eta zenbait tirabira ukan ondoren, herria bitan hautsi zen. Alde batetik



Kadreitako jendea orain hasi da udalaren trapu zaharrak ateratzen. Fraudeak eta tranpak egin dituzte herriko jauntxoek Dukal Etxaldearen alde. Hala ere, emakume adindunek eguzkia hartzen dute. Zo-



zeuden jauntxoak eta Udaletxea (bi kontzejal ezik), eta bestetik zegoen herriko gehiengoa. Aurtengo urtarrilean gertatu da, batez ere, hausketa hori. Haiek zatika erosi nahi zuten, eta hauek lur guztiak batera.

Dukal etxaldeak uste zuen erraz irentsiko zituela jendearen nahiak, baina ez da horrela gertatu, eta orain atzeraka doa. Urtarrilean egin zituen salmenta eskaintzak beheratu ditu bi alditan eta, jauntxoek ezik, inork ez dio oraindik deus ere erosi, eskaintako prezioetan.

Jauntxoekin batera ere ba daude beste berrogei familia, "*los lameculos que tiran de la levita*" direla esan didate. Eta talde honi "*satorrak*" deritzete.

Herriko gehiengoak, esan dudana bezala, lur guztiak batera erosi nahi ditu, baina herederoei ez zaie interesatzen zatika baizik. Bestela diru asko galtzen baitute. Mila miloitan saltzea espero dute.

250 familiek osatzen dute gehiengoa, eta 50-ek jauntxoaren taldea.

Diputazioa eta gobernua dukal etxaldearen alde

Orain dela denbora gutti, batzarre bat egin nahi zuten Elizan, eta gobernadoreak debekatu egin zieten. Joan ziren Valtierra zibilak eta fusil eta guzti han paseiatu ziren, herrian gora herrian behera. Gainera, orain gauetan ere joaten dira, jendea katxeatzera, lurrak arregatzetik itzultzen direnean. Kadreitana ez baita koartelik, eta duela gutti ETAK bi bonba ipini zizkion dukal etxeari, bat bakarrik lehertu zen arren. Orain gobernua beldurtuta dabil, eta zibilak bidaltzen ditu kadreitarrak arakatzera, badaezpada ere. Herria haserre dago zibilekin.

Beste alde batetik, Diputazioak ere laguntzen dio dukal etxaldeari. Apirilaren 30ean bukatzen zen deklarazio fiskala egiteko epea, eta herederoei fetxa honen aurretik saldu nahi zituzten lurrak, zeren bestela ikaragarriko kontribuzioak pagatu behar bailituzkete, orain arte tranparen bidez egin ez dutena, gero frogatuko dugun bezala.

Eta operazio osoa muntatu dute: *Caja de Ahorros de Navarra* (Diputazioaren kutxa) kreditu batzuk eskaini die kadreitarrari, lehenbailehen lurrak eros ditzaten, hau da, apirilaren 30aren aurretik.

Operazio honetan *Diario Navarra* eta *UCD*ko diputatua den Pegenautek ere parte hartu dute. *Diario Navarra* gezurra gezurraren gain esan du zifretan: lehenbizi esan zuen ehun familiek hartu zutela kreditua errentan zerabiltzaten lurrak erosi ahal izateko; gero esan zuen berrogei zirela. *UCD*ko Pegenautek ere berdintsu esan zuen gutun ireki batetan.

Muntaia honekin zera nahi zuten: herria erdibitzea, batez ere batasuna, eta horrela problema likidatu.

Baina herriko gehiengoak gogor salhatu du muntaia hau.



Gizonak tarbenan biltzen dira jaian. Kadreitara heldu nintzenean, talde honek eman zizkidan datuak eta esplikazioak. Azkenean, denek agertu nahi zuten fotoan. Erriberako nekazari jatorrak dira.

600.000 pezeta pagatzen ditu urtean kontribuzio bezala eta herriko 60% baino gehiago berea da. Bitartean, kadreitarrek sei miloi ta erdi pagatzen dituzte kontzeptu berberengatik.

Sei miloi ta erdi maizterrek eta miloi erdia nagusiak! Baina nola daiteke hori? Tranpak, jauna! Tranpak! Dukal etxaldea 2.700 hektarea ditu eta bi miloi ta erdi pezetatan baloratuak. Horrela datorkio kontribuzio farregarri hori.

Azken berrogei urteotan berdin pagatu du, alkateek utzi diotelako. Eta gaurregun ere ez zituen zifrak eman nahi alkateak, baina jendeak Diputazio-tik atera ditu nolabait.

Esaten dute, lur eta etxeek *bi mila miloi* balio dituztela orain eta bien bitartean *bi miloitan* baloratuak daude.

Beste alde batetik, Udalak duen urteroko presupostua (zazpi miloi paseak) ez dago frogatua zertan gastatzen den. Jendeak ikasi ditu zer partida klasetan gastatzen den diru hori, baina ez du ulertzen, fraude hitza ez baldin badugu sartzen.

Udalaren presupostuan partida hau agertzen da: "policía de seguridad = 800.000 pts.; policía urbana = 650.000 pts.". Eta Kadreitan gaur arte ez dute ezagutu polizia municipalik, ez eta kaleetan horrelako piztirik ikusi. Orduan...



Erriberako arratsalde beroan, kaleak hutsik eta zakur bat lotan, etzanda

Herriko gehiengo udalaren presupostua analizatzen ari da orain, eta asitragu trapu zahar aterako dute. Bitartean, alkatea isilik dago Diputazioaren eta UCDren amantaletan.

"Ura lapurtu behar dugu bizitzeko"

"Llevo dos pedazos de tierra y en los 41 años. Desde que tengo uso de razón no he regado más que con agua robada del río de Valtierra. Si me cogen, y me han cogido, tengo que pagar multa".

Gizon batek esan zidan hitzez hitz. Kadreitan oso ur gutti da eta lurra arregatzeko ura lapurtu behar dute. Denek egiten dute hori, bai gaeuz, bai egunez.

Gainera, lehen lurra idorrek eta desnibelatuak baldin baziren, lanaren eta urteen poderioz berdinu dituzte eta arregatzeko kanaleak egin. Orain, horrela prestaturik askoz gehiago balio dute, eta hobetze horik ere kobratu nahi dizkiete herederok. Birbaloratu egin baitute lurra.

"El abuelo de mi madre y mi abuelo allanando la tierra y gastando dinero y aún quieren que les pagemos nuestro trabajo" zion beste gizon zahar batek.

"De noche he tenido que tirarme al agua a romper los muros de cemento del río de Valtierra, para coger agua robada". "Noches enteras robando agua, y a veces ni tampoco habia agua", behatza aitxatuz kondatzen zidan gizaseme gazte batek.

Guzti hori zertarako? Bizitzeko eta lurrari fruitua hartzeko.

Eta ez dira hemen bukatzen herri honen zorigaitzak. Orain arte dukesak kobratzen zituen, haziak erosteko Estatuak ematen zituen subentzioak. Berdin egiten zuen artoaren eta erremolaxaren subentzioekin. Dukesa gelditzen denekin, eta herria hutsik.

"La duquesa se chupaba todas las subvenciones del Estado y a nosotros nos cobraba el cien por cien de las semillas, del maíz, de la remolacha y del abono". Eta errentak pagatzean segurantzia soziala ere kobratzen die nekazari. *Siervos* eta plebe direla uste zuen dukesak, hil arte.

Herriko taberna batetan nago nekazari talde batekin, igandeko bazkalondan. Beraiek kontatu didate historia guztia. Orain, poliki poliki, baina gogor, jauntxoek kontra daude, eta ez dute hain gaizki ikusten lau probintziak elkar daitezen.

Baina laguntza gutti eskaini diete partidu politikoek. Pixka hori ezker alderdiek eskaini diete, eta abertzaleen aldetik *EI*aren *Bultzaka* hartu dute. *PNV*k ere eskua bota die. Guttiago *HAS*k.

Herri gehiengo Diputazio demokratiko baten eta udal demokratiko baten zain dago, justizia egin *dakioten* eta merkeago eros ahal dezaten *"lur guztiak eta herri osoa erosiz gero, ez dutenei eta gutti dutenei emateko"*.

Bitartean, herederok Madrilén bizi dira, eta administratzaileak Zumaiak bi atso dira. A zer nolako propagandaren ederra Zumaiarentzat!

KONSTITUZIO PROJEKTUAREN ANALISIA (I)

KONSTITUZIOA. ESANAHIA. HISTORIAN ZEHAR IZAN DUEN BILAKAERA

Konstituzioak XVIII mendearen azkenaldean sortu ziren. Eta Estatu kapitalistak zuzenki hartu zuen parte horretan.

XVIII mendearen azkenaldean, 1789.ean hain zuzen ere, Frantziako Iraultza egin zen, eta Estatu Absolutistaren kontra egin ere.

Burjeseria, historian, XIV mendean agertzen da. Harrez gero, gizalditar barrena indartuz eta sendotuz joan da. Klase bezala gotortu eta, XVI gizalditik aurrera Estatu Absolutistak irauten duen bitartean bera da ekonomikoki klase nagusia.

Iragapeneko Estatu Absolutistak dirauen bitartean nagusigo ekonomikoa areagotuz doa. Izan ere, Estatu moeta honek iragapeneko izanda ere Estatu kapitalistaren itxura osoa baitu, eta aldi berean bera da Estatu Feudalarekiko haustura ere.

Jakina denez, Estatu Absolutistak Erregea eta Estatu identifikatu egiten ditu, eta horren lekuko da Louis XIVaren "L'Etat c'est moi" hura.

Erregeak bere eskuan ditu Estatuko botere denak. Absolutuki kontrolatzen du dena; ez du inolako mugarik, ez dretxo naturala ez positiboa dira ezertarako eragozpen. Eta Estatuko beste instituzio eta elkarteek ez dute ezelango kontrol moetarik.

XVIII gizaldiaren bukaeran (zenbait herritan, kasurako Britainia Haundian, lehenago gertatu zen hori, zehazki, 1640 eta 1688 bitartean), Estatu Absolutistaren instituzio juridiko-politikoak eragozpen bihurtzen dira burjeseriarentzat, burje-

seriaren klase interesentzat. Eta horregatik garai horretan hasten da botere politikoa eskuratzeko burruka. Egoera honetan, goraxeago esan bezala, klase nagusia burjeseria da.

Hauzia burjeseriak irabazi zuen. Eta garaipenaren ondoren Estatu Absolutuaren tresneria juridiko-politikoaz jabetu zen, eta harekin zerikusi izpirik ere ez zuen beste berri bat laboratu zuen.

Eta ordutik hona jadanik erregeek ez dute beren eskutan botere osoa. Burjeseriak MONTESQUIEUk laboratu zuen printzipioa indartuko du eta praxiara eramango, eta boterea banatuta izanen da.

Botere banaketaren printzipioak honako zerok suposatzen ditu:

a) Estatu guztietan ondoren aipatzen diren zeregin hauk ongi bereizi beharra, halegia: legeak emateko edo funtzio legislatiboa; emandako legeak aplikatzen dituen zeregin exekutiboa; eta aplikapenak kausa ditzakeen hauziak abazten dituen funtzio judiziala.

b) Hiru funtziook aginte desberdinei eman beharra, hala nola legeak emateko zeregina Parlamentu edo Gorteei, zeregin exekutiboa Gobernuari eta judiziala Hauzitegiei.

c) Hiru aginteok elkarren arteko harremanez loturik egotea, eta batez ere legeak ematekoa eta exekutiboa. Honek esan nahi du botereak, izan, desberdinak direla baina ez guztiz isolagarriak, eta beraz nolabait ere lankide edo lagunkideak direla.

Aginte banaketaren printzipio hau aurrera eramateko eta Frantziako Iraultzak laboratu giza-banako eta hiritarraren oin-harrizko printzipioak gauza normaltzat erabiltzen hasteko, Agiri arranditsu bat idazten da. Agiri horixe izanen da Konstituzioa eta hiritar guztiak makurtuko ditu bere aginduetara.

Beraz, konstituzio bat zera dela esan daiteke: idatzitako edo ohiturazko arau multzo bat; lerrune singular batez hornituta egon ohi da, eta berak erregulatzen du botereen erakuntza eta mugatzen ditu hiritarren obligazio eta eskubideak.

Horregatik konstituzio guztietan bi alderdi ongi mugatu egoten dira.

a) alderdi dogmatikoa: oin-harrizko betebeharrak eta eskubideak jasotzen dituenak, eta

b) alderdi organikoa. Hemen botereak mugatu, egituratu eta erlazionatu egiten dira.

Burjeseriak boterea eskuratzeko Estatu Absolutistaren erauzpena ekarri zuen. Haren ordezkari Dretxozko Estatu Liberala asmatu zen. Eta Estatu moeta hau, dudarik gabe, aurrerapen handi bat da Absolutuaz gonbaratzen badugu, baina gauzak Euskal Herriaren eta gaur zapalduta dauden beste herrien nazio nortasunaren kontserbamendu eta aurreramenduaren ikuspegitik begiraturaz Estatu Liberala eztenkada zorrotz bat da.

**EUSKAL AUTONOMI
ESTATUTU BERRIRAKO
AURREPROJEKTUA
ANTEPROYECTO
PARA UN NUEVO
ESTATUTO DE AUTONOMIA**

KIMU BERRI TALDEA
1976



Euskal konstituzio batetarako benetako saio heri herritar ba. bat.

Hona hemen, labur labur, Dretxozko Estatu Liberalaren ezaugarriak:

a) Legea ororen gain dago. Estatuak eta botere instantzia guztiak makurtuko zaizkio Lege Formalari, hau da, Konstituzioari. Ihardun politiko guztia konstituzioak mugatuta geratzen da.

b) Goian aipatu dugun botere banaketak indar osoa du.

c) Estatu Liberala sortu arte bizirik zegoen zenbait bitarteko instituzio politiko desagertu egiten da (Euskal Herrian, esaterako, Foru Institutuzioak). Eta instituzio horien ordezkariak dira, esate baterako: probintziak, ministraritzak, ordezkariak, gobernu zibilak, etab.

d) Boterea zentralizatu egiten da eta lege eta organu judizialak berdindu egiten dira (Hemen aipatzekoa da Foru Hauditegi eta tribunakal desagertarazi egin zirela. Haien ordezkariak dira Lehen Instantziako Hauditegi eta Audientziak).

e) Estatu Zentrala zergez, duanez, portuez, eta mugez eta abarrez jabetzen da (Gure kasuan, esaterako, mugok Ebrotik Bidasoara ekarri ziren).

f) Armada profesionaldu eta berdindu egiten da. Soldadutza nahitaez egin beharrekoa da, eta militar ihardun osoa gogorki berdindua, zentralizatu, eta iherarkiatua geratzen da (Erregio militarrek, Kapitaindegi Orokorrek, etab...).

g) Ekonomi alorrean Estatuak hiritarrari edozein ihardunetarako askapen osoa ematen dio. Estatuak alor horretan ez du ezelango eragozpenik jartzen. Hauxe da hain zuzen ere Manchesterreko basa kapitalismoaren garaia.

Puntuotatik ikus daitekeenez Dretxozko Estatuak aurreapen bat da, legearen nagusigoa ezagutzen eta botereak zatitzen batez ere. Eta bi zereak konstituziotan funtsezkoa direla kontutan hartzen badugu ohartuko gara zer honetaz, hain zuzen ere: Estatu guztien —eta gaur bertan ikusten dugu hori— erakuntza politikoaren giltza konstituzioa dela.

Hain garrantzitsua da konstituzioa, ezen, konstituzio gabeko edozein erregimen politikok demokraziarik gabekoa dela pentsa erazten baitu.

Ez da ahantzi behar Dretxozko Estatu Liberala burjeseriaren garaipenari esker sortu zela. Hortaz, garai hartan konstituzioetan zaintzen ziren eskubideak orduan burjeseriari interesatzen zitzaizkionak dira. Eta hildo horretan ulertu behar da ulertu ere, jabeagari ematen zaion inportantzia: 1789.eko Gizonaren eta Hiritarraren Agiriak jabeagari "sagaratua eta ukiezina" dela esaten du.

Baina ba da besterik ere, zeren eskubideak erabili ahal izateko murrizpenak ezartzen baitira sufragio murriztuaren bidez. Sufragio murriztuaren bidez botueterako eskubidea halako edo honelako ekonomi ahalmena duten pertsonetara mugatzen da. Beraz, konstituzio guzti hauek hiritarraren eskubideez dihardutenean hiritar-jabeaz mintzo dira.

Konstituzio liberalen garairik hoberena XIX gizaldi osoa eta XXaren hasiera izan da. Garai honetan guztiz garrantzitsu diren Estatu Liberal kapitalistaren birregokitze sakon bat suposatzen duten bi gertakari jazotzen dira: 1917.ean Sovietar Batasuneko Iraultza Sozialista, eta 1929.ean kapitalismoaren krisi handia.

Iraultza sozialistak kapitalismoak erakusten ez duen beste gizarte moeta desberdin bat posible dela azaltzen du. Eta 29.eko krisiak (Lehen Gerrate Mundiala baino lehenagotik hatzematen bazen ere) beste zerau erakusten du, hots, ekimen ekonomikoa ezin daitekeela libre, Estatuaren kontrol gabe utzi. Honela Dretxozko Estatu Sozialista sortzen da. Eta Estatu hau da Estatu

interbentzionista bat medio dela— monopolio kapitalismoaren azalpen juridiko-politikoak.

Honek guztionez konstituzioetara zenbait berrikuntza sartzea eramaten du. Ordutikoa da zenbait eginbehar eta eskubide batez ere kolektiboak, konstituzioratzea. Bideanabar ekonomia planifikatu beharraz loturik dauden zenbait eginbehar ere jartzen dira. Honela, nolabait kontrolik bat ere gabeko ihardun ekonomikoa hari mugaren bat ezartzen zaio. Eta hauetako lehen konstituzioa Weimar-en 1919.ekoa da.

Gaur egun Mendebalde deritzan ia Estatu guztietako konstituzioek zaintzen dute goian esan dugun eskubide sozialaren multzoa.

Estatu sozialistek, guztiek dute beren konstituzioa. Sovietar Batasunak, kasurako, 1924.ean lortu zuen lehena. Gero 1936.ean berri bat egin zuen. Eta bigarren hau ere ihaz, 1977.ean eman dako batez aldatu da. Berdin gertatzen da Txinako Herri Errepublikan eta Ekialdeko beste herrietan.

Noski, konstituzioak iradokitzen dituzten printzipioek ez dute zerikusirik kapitalismoaren gizarteetakoekin, baina hala ta guztiz ere konstituzionalismoa erregimen totalitario ez beste guztietara hedatu da.

Guztionez zera esan nahi dugu: Mendebaldean, konstituzio bat ukaiteak, oinheriz behintzat demokraziaren printzipio batzuei onhartzen direla esan nahi duela. Hortakoz, konstituzio bat onhartzeak estatu demokratikoen artean sailkatu ahal izatea ematen du, edo hala pentsatzen da bederen.

ITXURAZKO DEMOKRAZIARENTZAT KONSTITUZIOA FUNTSEZKOA DA

Konstituzioa onhartzeak Euskadiren etorkizunarentzat garrantzi ikaragarria du, eta batez ere independentzia eta sozialismoaren aukerak kontutan hartzen baditugu.

Goraxeago esan dugu konstituzioa onhartuz gero "demokrata" txartela eskuratzen dela. Eta txartel horren bidez Europar Estatuak gain darduen erakundeetarako (Merkatu Batua, etab.) ateak zabalik aurkitzen direla.

Inportantea zera da: Estatuak ulkan dezala Europar zehar dauden bezalako konstituzio "demokratikoak". Konstituzioa eman ondoren, haren aginduak betetzen diren ala ez diren... besterik da. Konstituzioaren babespean pertsonen eta herrien eskubideen edonolako hausturak egitea, gaur bertan, kasurako Alemania Federalean gertatzen den bezala, ez da axola haundirik merezi duen gauza, gehiegikeria nabarmenetara heltzen ez den bitartean, bederen.

Espainol Estatu demokratizarantz abiatu zenetik Europar bedekapen denak hartzen ari da. 1976.eko abenduaren 15ean erreferendumen bidez hasi zen ibilbidea. Ekainaren 15eko hauteskundeek jarraituz, konstituzioa onhartzean burutuko da.

Demokrazia hau Europar homologatzeari begira, udal hauteskundeek garrantzia hutsaren parekoa da. Udal hauteskundeak Estatu barneko gauzak dira. Europar diktadore hatza ezkutatzeko da interesatzen zaiona. Eta bideanabar, konstituzioa onhartuz Dretxozko Estatu bihurtzea.

Eta Europar eskaintzen duen homologapena balioetsuagoa gertatzen da beste datu hau kontutan hartzen badugu, hain zuzen ere, espainol Estatuak gaur dituen problemarik zitalenetarikoena autonomiarena eta nazio erreibindikapenarena dela, eta konstituzioan, noski, "nazionalitateek ederki

Artículo 139. 1. El Estatuto de autonomía será la norma institucional básica de las comunidades autónomas y deberá contener:

- a) La denominación de la comunidad que mejor correspondá a su identidad histórica.
- b) La delimitación de su territorio.
- c) La denominación, organización y sede de las instituciones autónomas propias.
- d) Las competencias asumidas dentro del marco establecido en la Constitución.
- e) El procedimiento de reforma del Estatuto, que requerirá, en todo caso, su aprobación por las Cortes generales mediante ley.

2. En el ejercicio de sus competencias, los órganos de las comunidades autónomas gozarán de las potestades y prerrogativas propias de la Administración Pública.

Artículo 141. 1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

- 1.-La regulación de las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y el cumplimiento de los deberes constitucionales.
- 2.-Nacionalidad, inmigración, emigración, extranjería y derecho de asilo.
- 3.-Relaciones internacionales.
- 4.-Defensa y Fuerzas Armadas.
- 5.-Administración de Justicia.
- 6.-Legislación penal, penitenciaria, procesal y mercantil.
- 7.-Legislación laboral, sin perjuicio de su ejecución por los órganos de las comunidades autónomas.
- 8.-Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo de los derechos forales. En todo caso, las reglas relativas a la determinación de las fuentes del Derecho aplicación y eficacia

de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles, relativas a la forma del matrimonio, ordenación de los registros e hipotecas, bases de las obligaciones contractuales y normas para resolver los conflictos de leyes.

9.-Legislación sobre propiedad intelectual e industrial.

10.-Régimen aduanero y arancelario, comercio exterior.

11.-Sistema monetario, divisas, cambio y convertibilidad, bases generales de la ordenación del crédito y la Banca.

12.-Legislación sobre pesas y medidas, determinación de la hora oficial.

13.-Coordinación y base de la planificación general de la actividad económica.

14.-Hacienda general y deuda del Estado.

15.-Sanidad exterior, programación y coordinación general de la sanidad y legislación sobre productos farmacéuticos.

16.-Legislación y régimen económico de la Seguridad Social, sin perjuicio de la ejecución de sus servicios por las comunidades autónomas.

17.-Las bases del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y de régimen estatutario de sus funcionarios, para garantizar a las administrados un tratamiento general común entre ellas; el procedimiento administrativo común, sin perjuicio de las especialidades derivadas de la organización propia de las comunidades autónomas; legislación sobre expropiación forzosa; legislación básica sobre contratos y concesiones administrativas y el sistema de responsabilidad de todas las Administraciones públicas.

18.-Pesca marítima.

19.-Marina mercante y abanderamiento de buques, iluminación de costas y señales marítimas; puertos de interés general; aeropuertos de interés general; tránsito y transporte aéreo; servicio

teorológico y matriculación de aeronaves.

20.-Ferrocarriles y transportes terrestres que transcurran por el territorio de más de una comunidad autónoma; régimen general de comunicaciones; tráfico y circulación de vehículos a motor; correos y telecomunicaciones; cables aéreos, submarinos y radio-comunicación.

21.-Aprovechamiento hidráulico, cuando las aguas discurran fuera del territorio de una comunidad autónoma e instalaciones eléctricas, cuando su aprovechamiento afecte a otra comunidad o el transporte de energía salga de su ámbito jurisdiccional.

22.-Obras públicas de interés general o cuya realización afecte a más de una comunidad autónoma.

23.-Régimen minero y energético.

24.-Normas básicas del régimen de prensa, radiotelevisión, y, en general, de los demás medios de comunicación social, sin perjuicio de las facultades que en su desarrollo y ejecución correspondan a las comunidades autónomas.

25.-Seguridad pública, sin perjuicio de la posibilidad de la creación por las comunidades autónomas de policías, que en sus respectivos ámbitos de competencia coadyuven al mantenimiento del orden público en la forma que se establezcan en los respectivos Estatutos.

26.-Requisitos de expedición y homologación de títulos académicos y profesionales y convalidación de estudios.

27.-Régimen de producción, comercio, tenencia y uso de armas y explosivos.

28.-Estadística para fines estatales.

29.-Autorización para la convocatoria de consultas populares por vía de referéndum.

2. Las materias no atribuidas expresamente en los respectivos Estatutos a las comunidades autónomas, serán competencia del Estado.

Euskal Herriak ezin onhar dezakeen konstituzio zentralista Abertzaleok EZE I Z esan behar diogu.

mugaturik dituzte autonomia lortzeko posibilitateak".

Beraz ez dago duda izpirik ere: konstituzioa erreferendum bidez onhar dadinean gaur Estatutuan agintzen dagoen erregimenak beste Estatu guztien bultzada eta lagunkidetasuna lortuak izanen ditu. Edo beste era batetara esanez, konstituzioa onhartzea izango da espainol Estatuan burjes demokrazia zindotzeko urratsik garrantzitsuena.

Eta zerau honako puntuok oinharritzen dute:

1. Mendebaldeko Estatuak, beraien artean aurkitzen baita espainola ere, beren homologapena emanen diote.

2. Estatu sozialistek ere homologatuko dute. Egia esan homologapen hau, jadanik, egiten ari da. Aski da, Estatu haietako ordezkariak noizki behin egiten dituzten deklarapenak irakurtzea. Esaldi hau esate baterako sarri entzun izan zaie: "Espainian libertateak eta demokraziak daramaten aurrerabideak poztu egiten gaitu".

3. Konstituzio hau "kontzentzuz", hau da, parlamentuko indar guztiek onhartua da, eta honek burjes demokrazia zindotzen biziki laguntzen du. Ikustea baino ez dago: euskal iraultzaileoi konstituzioan gehien interesatzen zaizkigun bi puntuak —independentzia eta sozialismoa— aparta ongi estalita eta bide ertzetatuta geratzen dira testuan. Juxtu, juxtu, ezkerreko alderdi erreformazaleen eta euskal nazionalismo moderatuaren neurriera geratu ere.

4. Nazioarteko kapitalismoak dituen eraginetako interesak (ekonomikoak, militarrik,

estrategikoak, etab.) ederki zainduta geratzen dira konstituzio honetan. Eta kapitalismoak hor multinazionalen bidez, penintsularen kokadura estrategikoaz etab. jokatzeko du. Eta, noski, nazioarteko kapitalismoak emana dio bere baietza espainol Estatuko eboluzio politikoari.

ESPAINOL KONSTITUZIOA ETA EUSKAL IRAULTZAREN PROZESUAREN AURRERABI- DEA

Espainol Estatuko konstituzioa onhartzeak —eta laster gertatuko da hori— euskal sozialismo iraultzailearen ikuspegitik begiraturik, guztiz garrantzitsuak diren zenbait galdera eginarazten ditu.

Bi galdera dira batez ere oso kontutan hartu beharrekoak.

1. Momentu honetan espainol Estatuan konstituzioa onhartzeak euskal prozesu iraultzaileari mesede ala kalte egin diezaioket?

2. Zer baldintza bete beharko lirarteke mesedegarria izan dadin? Gaurko proiektuak betetzen ditu horretarako baldintzak?

Hauk dira erantzuteko ditugun galderak.

Lohena bi erataria ihardets daiteke: erantzun ideial bat emanaz, esate baterako, edo bestela egoera politikoa aztertu ondoren ihardespen politiko bat emanaz. Eta hemen behar dena politikoa da, ideiala alde aurretik ezaguna baita. Erantzun ideiala hau litzateke: Espainol Estatutako konsti-

bat une honetan onhartzeak Euskadiri ez dio bederik egiten, zeren euskal prozesu iraultzaileko interesatzen den gauza bakarra Euskadiko alista eta jarein bat egitea baita.

Konstituzioa da behin eta berriro esan duguna. Espainol Estatuko bizitza politikoa zuzendutik duen funtsezko legea. Konstituzioa da beraz, beren artean lehena eta nagusia. Konstituzioa babespean egingo da Estatuko ihardun politiko eta ekonomiko guztia, eta beraz, nahi gure planteiamendu politiko guztiak eta Espainiako bizitza osoa sakonki baldintzatu ditu. Eta hau da gure lehen premisa.

Ahaztea komeni ez den bigarren premisa hau da: konstituzioa oposizio handirik gabe beren dela onhartua. Eta horren arrazoia parlamentuko alderdi guztiak bere alde izatearena da. Beraz, dirudienez parlamentuaz kanpora dauden alderdi askok ere apenas duen kontra jartzeko baliabiderik.

Hirugarren premisa: edozein konstituzioak bere buruari burukoki bederen, urte asko har dezake. Eta horren eraginez ikusi ahal izango dugunez, esperantza hori ez da falta oraingo honen inguruan, halebait, horren eraginez izango denaren esperantza, eta hori erantzuteko aski da aldatzeko egiteko posibilitateak zein ederki dauden lotuta ikustea: eskatzen diren baldintza gehigarriak oso nabarmenak izan behar dute.

Eta azkenik, laugarren premisa ahanztezina: konstituzioa kapitalismo nahiz sozialismodun mundu zibilizatu deitzen den zer horren aldeko aldeak erabiltzeko erabil daitezkeen eta beraz gure interesetarako tresna egokiak izan daitezkeen galdetu beharko genuke.

Gure ustez konstituzioak balioko luke baldintza asko beteko balitu:

1. Oinarrizko eskubideen zinezko ezagutzea, eta bereziki, eritzia libreki azaltzeko, erabaki biltzeko eta libreki autodeterminatzeko eskubideak etab. benetan ezagutuko balitu.

2. Espainol Estatua herri desberdinek osatua dela, hau da Estatuan nazio desberdinak daudela ezagutuko balu.

3. Estatuan dauden nazioak nahi dutena egin dezaten, erabakiak libreki azaltzeko balu.

4. Nazio horiei beren aurreramentu politiko eta nazionalaren, eta nazio berek hainbat bider erabiltzeko adierazi duten borondatearen arauera, beren buruak gobernatzeko erakundeak emango dituzten kulturaren, politikaren, gizartearen etab. aurreratzeko erabakiak.

5. Langileriak ekoizpen prozesuan, enprek eta Estatuaren ekonomian parte hartzeko ahalak emateko zabalagoak eta eraginkorragoak emango balitu.

Oraingo konstituzio proiektuan betetzen dira, behar bezala, baldintza minimook?

Ez, ez dira inola ere betetzen aipatu ditugun baldintzetako bat bera ere ez da betetzen. Erantzuna, beraz, argia da: konstituzioak —orain idatzitako bezala— ez dio euskal prozesu iraultzaileari mesederik egiten.

Guztionengatik eskuarteko proiektu honi erantzun behar da: ez da baina ezetza ematen diogu, eta kontrarioki jarrera bat hartu beharrean aurkitzen gara. Beraz, baietzeko botuak balio ez duenez gero, EZETZA ematea edo ABSTENTZIOA geratzen erabakiak.

Eta zer da hoberena, EZETZA ala ABSTENTZIOA? Gure eritzia argi dago: konstituzioaren kontrako kanpaina bat egin behar da, eta EZETZA


eman. Horretarako funtsezko arrazoiak honako hauek dira:

1. Erreferendum batetan emango dira botuak. Jakinekoea da erreferendumetako botuak zer nolakoak izaten diren. Erreferendumetan era honetako galderak egiten dira: "Espainiako konstituzioa onhartzen duzu, BAI ala EZ?"

2. Kontzentzuzko konstituzio bat dela esan duguna, beraz, Euskaditik kanporako botuak baietza emango dute, eta askogatik eman ere.

3. Hauteslearen arteko multzo handiena komunikabideak bultzaturik joango da, hau da Telebisitak, prentsak, irratiak etab. eranginda, baina baietza zeri ematen dion pentsatu gabe.

4. Botua zeri ematen zaion ez jakiteak behar bada, abstentzioa kausatzeko du. Abstentzio hori



Liberalen eta Absolutisten arteko burrukak Espainian XIX mendean. Espainiako lehenengo konstituzio burgesaren irudia.

agian ez da oso handia izango baina bai guk bultzatzen duguna pasiboen arteko beste horretan galarazteko tamainakoa.

5. Abstentzioak, nabarmena denez, aurrez aurre errefusatzeko du Estatu espainolaren, edo hobeki esan, Espainiaren kontzeptua. Abstentzioak, horrela ulertuz, Madrilen egiten dena bost axola zaigula esan nahi du.

6. Baina jarrera hau politikoki ez da bat ere egokia:

a) Abstentzioa ez bailuke jende gehienak ulertu ere egingo.


b) Abstentzioa Espainia kontzeptua aurrez aurre errefusatzeko izanen litzateke, baina horrela ez litzateke ezertxotarako ere egitura kapitalistak aipatuko. Jarrera erradikal bat izanen litzateke behar bada, baina ez iraultzailea.

c) Ezetza botu portzentaia garai bat, Hego Euskadira mugatuz, ohartzeko izanen litzateke eta ez Estatuan bakarrik, baizik nazioartean ere bai. (Honetarako fronte zabal bat beharko litzateke, eta agian PNV bera ere bere zuzenketaren batzuk aurrera egingo ez balute, EZETZA emateko gertu egonen litzateke. Guztiok, behar bada).

GALES-EN, ABERTZALEAK GOGORKI AURRERA

Orain direla egun batzu, EAJ-PNVek Galesko bi politikari gonbidatu zituen Euskal Herrira: Evans eta Williams jaunak. Biok "Plaid Cymru" alderdikoak dira eta Gwinfor Evans bera, Westminster-eko Parlamentuan diputatua.


Gwinfor Evansekin "Anaitasuna" rako hitz egin genuen, Galestar herriaren zenbait zehaztasun jakiteko. Gure alderdikoak osorik euskaraz idaten dugula jakitean, Evans jaunak interesa handiz hartu zuen elkarrikuska, ez baitzekien Euskal Herrian goitik behera euskaraz egiten diren alderdikoak bi dugunik.



Gwinfor Evans, EAJren gonbidatua Euskal Herriari.

Britainia Haundia erresuma bat da. Lau dira erresuma hau osatzen duten herriak: Ingalaterra, Ipar Irlanda, Eskozia eta Gales. Gales hamairugarren mendeko azken urteetan, indarrez, Ingalaterrako erresumara atxikitua izan zen, Eduardo I. menpean. Enrike VIII.a, errege famatuak, Gales osorik hartu zuen. Gaur Charles printze ingelesa, Ingalaterrako erregea izango dena, Galesko Printzea da eta, Galestarrak enganiatu eta bereganatu nahian, Gales hizkuntza ikasi du eta, 1969. urtean, Galesko Carnavon gazteluan Galesko Printze bezala izendatua izan zen, herri honetako nazio sentimenduak ase nahirik. Baina alferrik, dirudienez, galestarrak gero eta "separatistagoak" baitira.

Galesen bi milioi zazpirehun mila lagun bizi dira gaur. Herri langilea dugu galestarra. Ikatz mehatzetan lan egiten dute galestar langile gehienek. Galesko ikatz herrialde garrantzitsuenak hauexek ditugu: Rhondda



16 ALDIZKARI



(90.000 langile) eta Merthyr Tydil (55.000 langile). Galesek garrantzizko papera izan zuen bi Gerra Mundialetan eta Ingalaterrak Galestik atera zituen gerrarako behar zituen ikatz eta altzairuak. Ingalaterrarekin Galesek zituen ekonomi lokarriak asko sendotu egin ziren horrela eta baita ere Erresuma Batuaren barruko herri burrukalarienetariko bat bihurtu: 1915 eta 1917. urteetan Galesen izan ziren

langile-greba erresumaren soldaduek odoletan ito zituzten. Greba hauek 1932. urtean errepikatu ziren eta, urte honetan ere, galestar gazte batzuk bide politiko "normalak" alde batetara utzi eta komunismoarengantz bihurtu zituzten begiradak. Baina, dirudienez, ezkertiar taldeek ez dute garrantzirik izan Galesko bizitza politikoan, ez Erresumaren menpean dauden beste herrietan ere.

—Gu geu ere gorantza goaz gure hizkuntzan —esan zigun ingeleraz mister Evans-ek—, eta gaur hamasei aldizkari egiten ditugu osorik galetarrez. Liburu arloan, urtean berrehunen bat inprimatzen ditugu gure hizkuntza zaharrean.

Euskal aldizkariaren egoera ere galderak egiten digu, baita ere politikoki nondik jotzen duen "Anaitasunak" ezker aldetik jotzen duela jakitean, Evans jauna isilik gelditzen da segundu batzuz. Gero hitz egiten jarraitzen dugu.

—Zeintzu dira gaur Galesen alderdi politiko garrantzitsuenak, mister Evans?

—Partidu haundi eta indartsuena Laborista partidua dugu, noski, Galesek dituen 36 eskainuetariko 32 bereganatu baitzuten 1970. urteko hauteskundeetan. Beste lauutariko hiru kontserbadoreentzat izan ziren eta bestea liberal diputatu batentzat. Geroztik, ordea, Laboristek eskainu batzuk galdu dituzte eta geuk, Plaid Cymru alderdikoez, hauetariko hiru gureganatu ditugu. Gure alderdia gorantz doa eta, Westminsterren hiru diputatu baldin baditugu, hiri administralgo barruan, "Council" mailan, zenbait ordezkari ditugu. 1968. urtean, hauetariko ordezkari bakar bat genduen eta gaur 38 ditugu hirietan. Beste administralgo mailatan ere ordezkariak ditugu: "District Council" arloan, 130 ordezkari eta 300 "Community Councils" mailan.

—Plaid Cymru alderdia 1925. urtean egin zituen berri lehen urratsak: noiz lortu zuten lehen ordezkaria Llundresekko parlamentuan?

—1966. urteko hauteskundeetan, denok harriturik gelditu ziren gure lehen eskainua lortu genuenean. Eskozian ere sentimendu nazionalak gorakada bat egin zuen 1966-67. urteetan gorakada bikaina, Galesen baita gogorragoa.

PARLAMENTUA

-Zer egin dezakezue galestar nazionalistek Westminstereko parlamentu barruan?

-Gaur Westminster berbera da garrantzi handikoa. Gaur gobernu burokrazi bideetan bide politikoak baztertuz. Westminster baino, Whitehall berritu gaur garrantzizkoa. Gaur garrantziteena zera da, eguneroko arazoetan zerbait egitea, proiektu egotea. Eta eguneroko herrietan gabiltzanak ikusten duguna zera da, abertzaletasuna garrantz doala, inperialismoaren kontrako burrukan. Eta Londresen guk geure herrian sustrai ekonomiak ditugula argi eta garbi ikusten dute eta, mementu honek atzera botatzeko indarrak ez dituela. Horregatik komisio berri bat antolatu dute, Eskozia eta Gales konstituzio mailan nola landu ikertzeko eta, komisioak zuzenez, egin behar dena zera da. Eskoziari eta Galesi lehen zuzuten parlamentuak bihurtu, eta hauteskunde bidez parlamentu hauetarako ordezkariak aukeratu. Oraingo lortu duguna, ekonomi kontrola eta kultur arloa gure eskuetan hartzea izan da. Eta arlo hauetan mugitzen gara, batez ere, gure alderdi-koak.

-Nola da gaur, Galesen, egoera ekonomikoa?

-Lan eza haundia dugu, nahiz eta gure herria oso aberatua izan. Galesek Eskandinabiako herriak baino aberastasun naturala handiagoa du. Hala ere, Gobernuak, azken sei urteotan, ez du mehatz bat hertsi du zazpi astero. Altzairu eta burdin lantegi asko ere hertsi ditu eta herriak dituzten oraindaino. Galesen dugu Erresuma Batuko lan eza haundiena.

KULTURA ETA HIZKUNTZA

-Nola da kultur egoera zuen herrian?

-Gure hizkuntza da kultura-ren ikurrin bikainena. Gure hizkuntza oso zaharra da. Seigarren mendekoak diragure hiz-

kuntzaren lehen literatur lanak eta geroztik literatur bidea ez dela hautsi esan dezakegu. XIX. mendeko erdi aldean Galestarren ehunetik 90ek hitz egiten zuen galestarrez egunero. Gaur, ordea, ehunetik 20k bakarrik egiten du galestarrez. Estatuak arlo honetan hartu edo hartu ez dituen erabakiei buruz zerikusi haundia dute porzentaia horiek. Denbora luzean Estatuak gure hizkuntza arlo ofizialetan ukatu du, gure hizkuntza eskoletatik kanpo kaleratuz eta lan arloan ingeleraz zekitenak bakarrik onhartuz. Eskoletan, adibidez, galesez egitea zigortua zegoen. Egoera latz honetaz gainera, Gales herrira Ingalaterratik eta Irlandatik milaka langile etorri zaizkigu. Faktore hauek gure hizkuntza arrisku haundian jarri dute eta gure naziotasuna ere berarekin batean hil zorian jarri dute. Honengatik gure alderdiak hizkuntza mailan lan haundia egiten ari da.

-Zer lortu duzue zuen hizkuntzaren arloan?

-Hizkuntza ofizialatzat onhartu dute ingelesek eta gaur egun galestar batek bere hizkuntza erabil dezake lege mailetan eta legegizonak edo epaileak galesez ez baldin badaki, itzulpen berezia egiten zaio mementu berean. Hezkuntza arloan, gure hizkuntzari bultzakada bat eman diogu maila guztietan, ez bakarrik lehen mailan, baizik bigarren mailan ere, hamaika eta hemeretzi urte arteko ikasleen mailan hain zuzen. Burruka hauetaz gainera, Hizkuntza Elkarte bat gertutzen ari gara orain eta, honen balorea ikusteko, zera esan behar da, azken zazpi edo zortzi urteetan ehunen bat lagun gartzelatuak izan direla hizkuntza arlo hontan lan egiteagatik.

-Nola erabiltzen duzue galestar hizkuntza alderdi barruan?

-Nik neuk, adibidez, nire idatzitako guztiak galesez egiten ditut eta mitinetan alderdiko gehienok galesez egiten ditugu gure hitzaldiak. Administralgo barruan galestar hizkuntza gorantz doa. Gure "Country

Council" edo administralgo herrialde batetan galestar hizkuntza lehen hizkuntza da eta ingelesa bigarrena. Beste herrialde askotan galesa eta ingelesa berdin erabiltzen dira.

-Nola erabiltzen duzue galestarrek zuen hizkuntza irrati eta telebista mailetan?


-Bi arlo hauetan burruka oso gogorra da. Telebista barruan bi antolakundek lan egiten dute Erresuma Batuan: BBC antolakundeak, alde batetik eta antolakunde pribatuak, bestetik. Pribatu hauetariko bat galestarra dugu, "The Harleg Company" izenekoa. BBCek astean zazpi ordu egiten ditu galesez eta pribatuak sei ordu astean. Baina orain zera nahi dugu, "National Channel" bat egitea eta gauero hiru ordu t'erdiko galestar programa bat zabaltzea. Gobernuak ez digu ezetz esan, geuk azken hiru urte hauetan hartu dugun indarra ikusirik. Gobernuak programa hori egitea gure eskuetan utzi du eta orain Galesera bihurtu bezain laster lan honetan hasiko gara.

ABERTZALEAK

-"Plaid Cymru" alderdia Galesko alderdi abertzale bakarra al da?

-Bai, gu geu gara alderdi nazionalista bakarra eta oraingo ez dugu beste alderdi abertzale baten sorkundea espero. 1949.ean taldetxo bat sortu zen, "The Welsh Republican Movement" izenekoa, gure zatiketa bat bezala, baina hauteskundedan oso gaizki ibili ziren eta talde hauetariko erdia berriro gure alderdira bihurtu zen, beste erdia laboristengana joaten zen artean. 1965. eta 1970. artean talde harmatu bat sortu zen, "The Free Welsh Army", baina hauk ez ziren politikoak, terroristak baizik. Lehergailuak erabili zituzten, pertsona batzu zauritu, beste batzu hil zituzten, baina 1969. urtetik gaur arte ez dute beste ekintzarik egin.

-Plaid Cymru alderdi barruan, zein jende moeta biltzen da?



—Gure alderdian maila guzita pertsonak ditugu. Gure jokabideak oso gogorak dira, "radikalak" eta gure artean ez dugu ezker-aldea eta eskuinaldea bereziten. Laboristentzat, hain zuzen, ezkertiarak gara. Gure alderdian langileak dira kontrola dutenak; gure alderdiko jendea eta alderdi berbera harma nuklearren kontrakoak dira; inperialismoaren kontrakoak gara; zentralismoaren kontra jotzen dugu eta Gales bera federaio bat bezala antolatua ikusten dugu. Lokal boterea indartu nahi dugu, hiri eta herri bakoitzeko bistanleek beren arazoak eskura ditzaten.

—Gales herrian ba al duzue zentrale nuklearrik?

—Bi zentrale ditugu eta oso kezkatuak gara. Plutoniorik ez dute egiten, baina orain Gobernuak zera nahi du, Galesen plutonioa egitea eta plutonioa egitea eta plutonio hori harma nuklearrak egiteko erabiltzea. Hau ez dugu inola ere onhartuko. Gure ustez, Erresuma Batuen gaurko harma-presupostua askoz gehiago guttitu behar da eta gure proposamenduak gastu hauek zortiren batetara jaitsi behar direla dio Gobernuari.

ULSTER

—Zer dio zuen alderdiak Ulster-eko arazoari buruz?

—Gure ustez Ipar-Irlandako arazoak ez du irtebiderik. Hala ere irlandarrak dira ia ezinezko irtebide hori bilatzen saiatu behar diren bakarrak. Geuk "Fianna Fail" alderdiarekin ditugu harreman gehienak Irlandan barruan.

—Internazional arloan zeintzu dira zuon harremanak?

—Eskozian, "Scottish National Party" rekin eta Britainian "Ar vro" alderdiarekin. Gerra denboran britainiar asko Galesera etorri ziren iheska eta geure etxeetan onhartu genituen.

—Bihur gaitzen berriro ekonomia arlorra: non dira zure ustez Gales herriak dituen ekonomia arazoentzat irtebideak?

—Egin behar dugun lehen

gauza zera da, Galesen infra-estruktura indartsu bat antolatzea, geure ekonomiari bultzakada bat emateko. Bideak eta trenbideak behar ditugu eta Galesen sortzen den indar elektrikoa gure herrian erabiltzea, gaur esportaziorako sortzen baita. Galesen industria txikiak behar ditugu, nekazarien produktuak lantzeko, batez ere.

EUSKAL HERRIA

—Euskal Herria bi egunetan ezagutu duzu: zure eritzia jakin nahi dugu...

—Hemen nazionalismoa hain trebe zegoenik ez nuen uste. Arlo askotan gure nazionaltasuna baino indartsuagoa da eta hemen egin diren batzoki eta eskolak egiteko diru asko behar izan da. "Deia" egunkariak ere inpresio ona egin dit. Arrasateko kooperakundeak ere oso interesgarriak dira. Esan didatenez urtean lau entrepresa berri antolatzen dira kooperakunde bidez. Gure herrian horrelako zerbait behar dugu.

—Euskal Herriko ezker abertzaleekin harremanik izan al duzu?

—Ez, PNVek gonbidatu gaitu eta bi egunetan gauza asko erakutsi dizkigute. Oso okupatuak egon gara.

—Zer diote galestar gazteek marxismoari eta sozialismoari buruz?

—Gure alderdiaren barruan ba dira marxista direla esaten duten batzu, marxismotik ideia batzu onhartzen dituzte, baina ez dira marxista hutsak. Sozialismoa, nazionalismoa bezala, hitz "zailak" dira. Nazio bakoitzean nazionalismo bat dago eta sozialismoari buruz berdin jazotzen da. Bakoitzak bere eritzia du nazionalismo eta sozialismoari buruz. Lehen esan dudana bezala, gu zentralismoaren kontra gaudete eta, noski, industriaren nazionalizapenaren kontra. Ez dugu nahi burokratek gure industria kontrolatzea, herri marxista askotan gertatzen den bezala. Estatuak kontrolatzea zera esan

nahi du, pertsona multzo txiki batek herria kontrolatzen duela. Hori burokrazia hutsa da, estatu-kapitalismoa. Gaurko herri sozialistak zapalduak daude eta herri horietan ez dago pertsonal askatasunik. Geuk kontrola herriaren eskuetan nahi dugu, ez burokraten eskuetan. Eta honetarako gure alderdiak syndikatu mailan gogor lan egiten ari da, langileen eskuetan egon beharko baitu etorkizunean Gales askatu baten ekonomia eta kultura.

SINDIKALGINTZA

—Nolakoak dira zure herrian "Trade Unions" edo syndikatuak?

—Gales herrian urte luzetan izan diren syndikatuak gaur abertzaletasunez bete dira eta syndikatu galestarrak bihurtu dira. Oso gogorki jokatu dute Galesen alde, Galesko Parlamentu baten alde. Syndikatu hauetarako hainbat langile gure alderdiak dira eta galestar nekazari asko ere syndikatu hauetan eta "Plaid Cymru" barruan daude. Aintzina, laboristen partidu barruan ziren galestar langileak eta "trade unions" edo syndikatuetan zirenek Gales Herriarentzat burujabetasuna eta Parlamentua eskatzen zuten. Belau-naldi zaharreko langile haiek gaurkoen asmo berberak zituzten, baina gero Laborista alderdia asko aldatu zen eta oso zentralista egin zen. Gaur, ordea, laborista langile askok oso galestarrak dira syndikatu mailan eta "trade unions" barruan galestar planteiamenduak egiten dituzte.

Puntu batzutan Gales eta Euskal Herriaren artean antzeko gauzak aurkitu baldin baditugu, beste batzuetan, ordea, egoerak eta jokabideak ez ditugu berdinak, herri bakoitzak bere bide bereziak baititu askatasunerantz egiten duen bidean. Lerro hauek "Gra Gales Askatua!" oihu bat opa diegu Cymruko langile guztioi.

HISTORIAN ZEHAR

BENJAMIN DISRAELI (2)



Iratiko oihan sorginetan, Benjamin Disraeli izandakoaren itzalarekin hitz egiten jarraitzen dut.

—Beraz —galdetzen diot—, Benjamin gazteak, bere bizitzarako, helburuak markatu zituen eta jarraiki zitzaizkion.

—Horrela da —erantzun dit itzalak—. Oso goian zegoen helburua markatu zuen edo adore handiz jarraiki zitzaion. Alde honetatik, euskaldun gazteriarentzat eredu gerta daiteke. Ez zuen mediokritatean erori nahi. Gauza handiak eta berriak nahi izan zituen. Bere ideologia, noski, ezin dezakegu eredu bezala aurkez, baina, eta esan dizudan bezala, Benjaminen bizitzan ba dago jarrera probetxagarriak.

—Zu, eta zein epe betetzen du haren bizitzak?

—Ikus: 1804. urtean jaio zen eta 1881.ean hil. Epe hau zuek euskaldunok errazago uler dezazuen, zuen historiako gertaera batzuek aipatuko dizkizuet, urte tarte horietan gertatuak. Adibidez, 1807. urtean Napoleon bere armadarekin Irunen sartzen da, 1833-39 epean lehen gerra karlista gertatzen da, 1840. urtean Bergarako konbenioa sinatzen da, 1872-76 epean bigarren gerra karlista eta azkenik 1881. urtean, Benjamin Disraeli hiltzen den urte berean, Sabino Aranak, Orduñako Jesuiten ikastetxea, gaixorik uzten du, 1882. urtean euskal abertzaletasun modernoaren oinarriak aldarrikatzeko. Beraz, Benjaminen garaian bizi zehar Sabino Arana (1865-1903), bai eta Zumalakarregi (1788-1835) eta Iparragirre bera ere.

—Eta zer esan diezadakezu Benjaminen deituraz? Deituraz aldatu egin zuen...

Beno, orain Xabier Kintanak proposatzen duen zerbait egin


zuen. Bere aitita Benjamin ISRAELI zen. Bere aita Isaac D'ISRAELI, eta aztertzen ari garen pertsonaia, Benjamin DISRAELI. Beraz, bere deitura ingelestatzen joan ziren.

—Ongi, orain jarrai aurrera.

—Beno, esan nizun nola ingelesek, espainolen kolonialismoa deuseztatu ondoren Ameriketako lurraldeekin komertzial harremanetan hasi ziren. Orduan, Londreseko Boltsan igoera handiak egon ziren akzioen balioetan eta Benjamin, adiskide batzuekin, espekulatzen hasi zen, baina gauzak ez zitzaizkion ongi irten eta galera handiak lortu zituen. Galera hauek, bere bizitza markatuko dute eta zahartzaroraino iraungo. Zorretan jausi zen eta esan dizudanez, zahartzaroraino ezin izan zuen zama hori gainditu. Beno, nik ez dizut orain garai hartako gorabeherak zehazki kondatuko. Egia esan, nire asmoa ez da Benjamin Disraeliren biografia zabal eta sakon bat aurkeztea, bere bizitzako puntu nagusi eta baliagarri batzuek aztertzea baizik. Eta hau esango dizut: Benjaminen bizitzako une garrantzitsuetan, eta batez ere zoritxarrak jota aurkitzen denean, bere barnea lasaitzeko edo, nobelak idazten ditu. Nobela hauetan, tratatu dituen pertsonaiak, protagonista bezala erabiltzen ditu, izenak aldatuz. Maiz igartzen zioten, eta gaizki erabiliak zirenak, hau da, protagonista gaizto bezala, kexatzen ziren eta arerio bihurri bilakatzen zitzaizkion. Horrelaorai hartan "Vivian Grey" idatzi zuen.

—Emakumeak atsegin zitzaizkion, ez da?

—Ez da nire asmoa Benjaminen bizitze pribatua hemen azaltzea, baina esan behar dizut bere bizitzan emakumeek parte inportante bat izan dutela. Adibidez, aipaturiko nobela idatzi zuen garaian, Austen andrearekin harreman kulturalak zituen, eta bere lan literarioak pasatzen zizkion, eritzia eman ziezaien. Gizonekin baino lasaiago sentitzen zen emakumeekin, beharbada haiekin baino hauetan mirespen handiagoa lortzen zuelako, harrera hobeagoa. Austen senar-emazteekin Italiara jcan zen, eta itzultzerakoan, bere aitarengana abiatu zen, Londreseko inguruetan. Han, bere arreba Sarah-ren sostenguearekin, "Duke txikia" idatzi zuen, eta ondoren, arreba eta biek, Benjaminek 25 urte zituela, Palestina bisitatzea erabaki zuten. Palestina-





tik Ingalaterrara zetorrela, untzian "Contarini Fleming" idatzi zuen. Epe bat bere aitaren etxean igaro ondoren, menditartean, Londresera joan zen eta *Duke Street* kalean etxe bat alokatu zuen. Bere asmoa, Parlamentuan diputatu bezala sartzea zen, 1831.eko hauteskundeetan. Bere ohiturei jarraikiz, emakumeekin hasi zen, eta Norton andrearengan laguntza balios bat aurkitu zuen. Emakumeek gizonezkoen atea zabaltzen zizkioten, eta garai hartako Londreseko saloietan sarrera lortu ahal izan zuen. Gizonezkoen aldetik ez zuen harrera oso onik aurkitzen, bere familia noblea ez zelako eta judu arrazakoa izateak ere ez zion inolaz ere laguntzen. Baina helburu bat markatu zuen, Parlamentua. "Atsedena nahi dut, libertitu eta aintzinate nahastuaz amets egin, orainari, orain baretsuari irribarre egin. Baina, oil, harrotasunak burrukara narama; bai, harrotasunak soilik eta ez abizioak, eragiten nau. Nitaz ezin esan izango dute: Frakasatu egin zuen!" Behin *Bulwer* adiskideak esan ziona gogoan zuen: "Egia da, gure gaztaroa sakrifikatzen dugu, gozamenaren urte dirdiratsuak... Baina nahitaez aurrera egin behar dugu. Nolako garaipena arerioentzat burruka utziko bagenu!"

—Eta hauteskundeetan, nola irten zen, garaile?

—Ez, galdu egin zuen. Indepediente bezala presentatu zen. Bere kontrarioek esaten zuten "tory" (kontserbadore) maskaratu bat zela, eta berak erantzuten zien "tory" maskaratu baten antz gehien zuena, agintean dagoen "whig" (liberal) bat zela. Eta puntu honetara heltzean, kontsiderazio partikular bat egin behar dizut. Alderdi politikoak, oposizioan daudenean, agintean daudenen kontra aritzen direnean, programa kontrario bat aurkezten dute, baina gero, agintera iristen direnean, "tory" maskaratu haien "whig"ak bezala jokatzeko dutela. Horrengatik, ez zaitezte gehiegi fida euskaldunek PSOE-z. Beno, goazen aurrera. Kontsolamendua emakumeetan aurkitu zuen, eta Londreseko saloietan hainbatekin adiskidetu zen. Garai hartan amorante bat ere izan zuen, eta beste nobela bat, "*Henrietta Temple*", eta jarraian beste bat, "*Venetia*" idazteko denbora bilatzeko gauza izan zen. Haietarik saloi batetan, Carolina Norton-en etxean prezeski, lord Melbourne presentatu zioten. "Zer nahi duzu izan?", galdetu zion ministrariak.


Eta Benjamin gazteak zuzenki erantzun: "*Lehen ministrari, jauna*". Lord Melbournek goitik behera begiratu zuen. "Zu ez zara inoiz horrela izango". Baina ez zekien "ezina" izena Benjaminek ez zuela sekular ere onhartu.

—Ikasle denboran *Ekonomia Politikoa* ikasi nuen eta garai hartan Ingalaterrako historian eta Mendebaldeko Zibilizazioan garrantzizkoa izan zela...

—Arrazoiak duzu. Ingalaterran sekulako krisisa sortu zen. Langoak ehunda milaka ziren. Gosea nagusitzen hasi zen. Orduan, teoriak ekonomikoak, bi nagusi, bata bestearen aurka burukatzen hasi ziren: protekzionismoa eta librekanbtoa. 1833. urteko hauteskundeetan, "whig" alderdikoak nagusitu ziren, lord *John Russell*-ekin. Protekzionistek, hau da, "tory" duana zergak igotea nahi zuten, ingeles industria laguntzeko eta babesteko, baina era berean, beste Estatuek Ingalaterrak behar zituzten janariak igon egingo zutelako mehatxua bota zuten. *Tory*ek nahi zuten Ingalaterra Europako fabrika bilakatu, eta Europa Ingalaterrarekin soroa. Robert Peel zen "tory" hauetariko burua, *Ekonomia Politika* ikasleentzat izen ezagunaren noski. Disraeli toryekin batu zen eta lord Lyndhurstek behin, *William Gladstone* eta Disraeli gazteekin aholkuak ematen ari zela, hau esaten zuten: *Herri asanblada baten aurrean inoiz zuen buruak defendatu behar izatekotan, egin ezazue atakatzeko Entzuleek, atake berriak emateko dien gozamena gogoan harturik zuei egin zitzaizuen ahaztu egingo dute*". Gero, hirugarrenez hauteskundeetara presentatu zen, eta hirugarrenez galtzaile irten. Disraelik 32 urte ditu, eta esku hutsik aurkitzen da. Kontsolatzeko, berriro saloietan emakumezkoekin. Baina bere helburua ez du ahaztu. Politikoen lana aztertzen du. "*Nazio baten artelan bat da, eta denboraren lana*", idazten du. 1835. urtean "*Ingeles Konstituzioaren defentsa*" argitaratzen du, arrakasta handi bati lortuz. Hauteskundeetako hiru galerak esperientzia bat ematen diote. Jadanik ez da lehengo gazte buruarina. Heldutasun bat lortu du. Nekeek bere izpiritua gogortu eta aberastu egin dute. Izen bat lortze ari da. Eta Guillermo IV errege hiltzen da eta 18 urtetako errege gazte batek tronua hartzen du. Victoria erreginaren epea hasten da.

Xabier Gereño

NORBERAREN BILAKUNTZAN



Leihoaren kontra jarririk egoten naizeanean, nire aurrean ditudan pinudien barrura ikusi nahi izaten dut. Ba dirudi zeredozer bila nezakeela eta begira nagó. Nire begiak bultzatu egiten ditut, bistak ikusten uzten duena gainditzeko eta "forma horien iluntasun sakonera" begiratzeko. Baina ezin... ezin dezaket. Pinudiaren barrutasunak ikusteko bertaraino joan beharra daukat. Mugitu beharra daukat. Ezina da geldi egonik hura ikustea.

Antzekoa iruditzen zait norberaren bilakuntza. Nire usteko, bizi beharra dago. Ikusi, entzun, sentitu, maitatu... gure egoera objektiboa aditzera ematen zaigu eta hauxe asumitu beharra dago.

Bestalde, niri iruditzen zait gure Herria, Euskal Herria, ez dela oso leku txarra lan honetarako, zeren beste leku batzutan baino erresorte gehiago baitutugu, agian. Esprikatuko dut hau. Pertsonak kontraesanez aurrera jotzen duela onhartzten badugu, lerro hauk berauk beste hainbeste kontraesanen fruitu dira, gure herria panazea bat izan daiteke.

Ez dut honetaz esan nahi gure herria kontraesan kontutan besteak baino gehiago denik, baina bai, ordea, leku askotan baino gehiago sentitzen direla, ageriago daudela, atmosfera bera ere kontraesanez beteta azaltzen zaigularik.

Baina ba dirudi jende bat ez dagoela oso ados honekin. Edo behintzat hori da nik inguru batzutan sumatu dudana. Eta hala, jende batek beste lurralde batzutan bilatuko luke hemen topatzen ez duen erantzunik, kontraesanen irteerarik. Ez da hori Euskal Herrian bakarrik gertatzen, lurralde guztietan ematen den gauza da.

Beste batzuk, herriz aldatzen ez badute ere, inguru aldutzen dute. Hala nola, batzu inguru bakartien bila doazen bezala, beste batzuk jendez beterikako inguruetara jotzen dute. Batzu baserritarrek ezinbestean utzitako basetxeetara biltzen dira, eta beste batzu miloi bat begitako munstroak handitzera pasatzen.

Eta noski, guztiak uste dute, inguru egoerariago bat dela, kontraesanak gainditzeko.

Beste jende moeta bat ere ba dagoke. Ez herriz, ez inguruz mugitzen ez direnak, bizitzari dioten beldurreratik noraezean dabiltzanak, kontraesanak gainditzeko gauza sentitzen ez direnak.

Ni, zu, guztiok, hauetako talde batetan gaudela, beharbada.

Garrantzizkoa iruditzen zait guztiok jakitea nor non sartzen garen. Izan ere, geure

errealitatea zenbat eta gehiago ezagutu, hainbat eta errazago izango zaigu erantzunak aurkitzea, erantzun partzialak besterik ez badira ere.

Eta haria hemen utziz ipuin bat kondatu nahi nizuke, dena hitz serioetan ez dadin geldi:

"...Behin batetan ba zegoen gizon bat, ez oso zaharra, ez oso gaztea, gauero zerura begira egoten zena."

Niri pinudiarekin gertatzen zaidana gertatzen zitzaion gizon hari zeruarekin.

"Gauero bere etxeko terrazara ateratzen zen aulki bat hartuta, eta bertan eserita zerura begira, orduak pasatzen zituen.

Begira, begira, zeruan sartzera heltzen zela pentsa zitekeen, hain kontzentrazio handiz egiten baitzuen hau. Egunak pasa ala, ba zirudien zerua ezagutuz zihoala."

Nik pinudiarekin lortzen ez dudana, hark zeruarekin lortzen zuen.

"Ba dirudi gainera ezagutzen hasi zena asko gustatu zitzaiola. Hara begira ikusten zuenak hunkitu egin zuen guztiz gure gizona.

Egunak luzeegiak iruditzen zitzaizkion. Egun osoa pasatzen baitzuen gauaren zain.

Halako batetan zerura joan behar zuela deliberatu zuen. Ezagutu zuen mundu berri eta ezkutu hartara joan nahi zuela. Joan beharra zuela. Eta bere bizitzaren problema bihurtu zen nola joan hara gora. Gauak osoak terrazan pasatzera heldu zen. Denboraz lanera joateari utzi zion. Obsesioa bihurtu zen berarentzat. Terrazan leku batetik bestera paseiatzen zen. Ahal zuen kontzentrazio handienaz begiratzen zuen.

Gau batetan, egoera honetan zegoela, nigarrez hasi zen: ezinaren nigarra, maitemindua- ren nigarra, eta oihuka, oihuz heldu nahi zuela zerura zirudien. Eskuak altxatu eta zerua hurbilago ikusi zuen. Aulkiaren gainera igon, eta hurbilago. Terrazaren orma gainera, eta hurbilago: eskuak luzatu zituen, nigarrez, oihuka, salto egin zuen."

Hau entzutean niri iruditzen zait gizon horrek oso gauza ederrak ikusi eta ezagutu zituela zerura begira, lurrera beti begira daudenak inoiz ikusiko ez dituztenak. Baina iruditzen zait ere, zerura begira egon beharrean lurrera begira egon balitz, zerua aztertu zuen gogoaz lurra aztertu izan balu, beharbada, beste gauza polit batzu ezagutuko zituela, eta iruditzen zait ere salto egin beharrik ez zuela izango.

Mendi zabal bat

HAURREN ADIMEN AURRERAPENERAKO PEDAGOGIA BATEN BILLA

c.—SOZIALIZATZEA EDO GIZARTE ESPE-
RIENTZIA: *Haurren adimen aurrerapena bere sozializatzearen parean doa. Haurren ekintzen koordinaketa orokorrak (operazio logikoak eta logiko-matematikoak) zerikusirik ba daukate ekintza kolektibo eta inter-indibidualekin. Sozializatzea, haurrak eraikitzen duen eta haurri eragiten dion estrukturaketa bat da. Operazioak eta kooperazioak estrukturaketa berdintsuan eraikitzen dira, batak eta besteak elkarren sortzaile izanik. Haurren arteko interakzioan haurrak egiten duen gizarte esperientzia, bere asimilatze kapazitatearen arauera egiten du, baina interakzio horrek bere estruktura eagutzailak aldatzen ditu ere, akomodatze bat sortuz. Gizarte esperientzian ere, inguru fisikoaren esperientziaren dialektika berdina aurkitzen dugu: adimena adaptatze kapazitate bat dela.*

Gizarte esperientziak haurren aurrerapenerako duen eragina, garrantzi handienagokoa da, haurren alderdi ezgutzailak eta afektiboak hartzen dituelako. Ikastola batek haurri eskaini diezaiokkeen esperientzia erraz eta aberatsena gizarte esperientzia da.

Honegatik, gure heziketa lanaren helburua, haurren arteko interakzio egoera edo situazioak sortzea izanen da: elkarren arteko jolasak elkarlanak eta elkarriketak, elkarren arteko azalpenak eta eztabaidak. Haurren artean kooperazioak dardenean eta taldeek estrukturaketa bat lortzen dutenean, haur bakoitzaren aurrerapen oportunitateak aberastu egiten dira. Taldeak, elkarrekintza batetan diharduenean, jokera berri eta ikaskuntza

berrietara eramaten ditu taldekideak. Haur bakoitzak bere jokaera bereziarentzat leku bat aurkitzen du taldeko kooperazioan; lortutako trebetasunak indartu egiten ditu haurrak eta beste trebetasun berrien beharra sentitzen.

Honegatik, proiektuak taldeka egitea proposatzen dugu. Talde giro bat lortzen bada, hau da, haurren arteko elkarlanerako joera sortzen bada, harreman horietan aurkituko du bakoitzak kreatibitateko ziria, elkarren arteko kontrola, kritikazale-tasunaren froga eta, azken batetan, objetibitatea.

Gizarte esperientzia honen ondoan, gizarte nagusiaren esperientzia dago. Transmisio kultural guzti hauek beren garrantzia dute haurren aurrerapenerako (jokaerak, ohiturak, eritziak, hizkuntza bera). Transmisio guzti hauek jasotzen ditu haurrak, asimilatze gai den arauera. Hizkuntzaren aurrerapena operazioen parean doa eta ba dirudi operatibitateak markatzen duela zeintzu hizkuntza maila edo estruktura erabili. Hizkuntza asimilateko eta batez ere hizkuntzak daramatzan estruktura logikoak asimilatze, asimilatze instrumentu bat behar du haurrak alde aurretik, eta asimilatze instrumentu hori operazioen eraiketan datza.

Kooperazioen eraiketa honek ere, haurren "integratze" era berezi bat adierazten du. Haurra bera da, haur gizarte bihurturik, nagusi gizarteari hasera ematen diona, eta honek bere prozesua eta genesia eskatzen du. Nagusiek antolatutako ikastolak haur gizarte horri Herriaren kultur bizitzari adaptatzeko bidea eman beharko dio eta ez edozein eratako autoritarismoz menpean jarri.

3.—AURRERAPEN EKILIBRAZIO LEGEA

Lehen aipaturiko hiru faktoreek ez dute osorik azaltzen aurrerapenaren dinamika. Ba dago beste laugarren faktore bat, aurreko hirurak beregan hartzen dituen eta dinamika osoaren azalpena ematen duena: ekilibrazio faktorea. Mailaz maila, operazio estruktura berri bakoitza aurreko operazioen oinarrian eraikitzen da, aurreko operazio hauek zabalduz eta kontextu berrietan estruktura-




tuz. Baina operazio berri hauk, desekilibrazio, kontraesan edo burrukazko egoera batetik sortzen dira, ekilibrio zabalago baten bilakaerari erantzunez. Adimenaren aurrerapena, adaptatze prozesu dinamiko bat da, ekilibrazioz, desekilibrazioz eta berrekilibrazioz jositako prozesua. Asimilatze eta akomodatzearen arteko dialektika gidatzen duen faktorea ekilibrazioa da. Ekilibrazio hau adimenaren genesiaren eta estrukturaketaren oinharrian dago.

Hezitzaile garenon zer egina, ekilibrioa lortu duen haurraren ekilibrio hori kinkan jarriko duten situazioak sortzea izanen da, aurrera jo dezan, eta desekilibrioan dagoen haurrari berrestrukturaketa berriak lortzeraziko dizkioten esperientziak eskaintzea. Haurrak berak eman beharko ditu pauso hauk bere ekintzetan, guk eman geniezazkiokkeen soluzioak alperrikakoak izanik. Soluzioak baino, soluzio bide eta prozesuak du hemen garrantzi gehiag. Haurrentzat ulertzea asmatze eta berregite bat izanen da beti, eta berregite honen helburua ekilibrazio eta autorregulazio bat.

Guk, projektuetako ekintzak eta esperientziak haurrari proposatzerakoan, zein den eman dezakeen hurrengo pausoari begira jokatu dugu, genesisia eta estrukturaren arteko ekilibrazio dialektikoa indartuz. Ez genesisia soilik, ez eta estructuresoilik, biak baizik.

Orain arte esan dugunarekin argi geldituko zen haurraren adimen aurrerapenarentzako pedagogia bat lortzeak haurraren nortasun osoaren aurrerapena lortzera garamatzala. Pertsonaren adimenezko, afektibitatezko, gizartezko eta moralezko jokaerak elkarrekin loturik baitaude, batasun bat osotuz.

Saioka taldeak



Sabino
Echevarria
Güenechea / Promociones

Carmen Kalea 11 - 6 esk.
Tlph. 673 06 19 - 748 - 729
Zornotza/Bizkaia

Zornotzako merkatal lokale eta 90 etxabizitzaren eragintza eta salmenta.

ERLOJUTEGIA ETA BITXITEGIA

ORIENT - SEIKO QUARTZ

**Comercial
SANCHEZ**

Erregalugaiak (Hemengoak-Atzerrikoak) eta enkantea.

Erloju moeta guzien konpontze segurtatuak.
Bapateko bitxigintz grabatuak

DENDA NAGUSIA
Ramón y Cajal 30
Telf. 4357595
DEUSTUA - BILBO 14

ORDEZKO DENDAK
Particular de Diez 2
Telf. 4331743
SANTUTXU
BILBO

Rondoko 4
Telf. 4470338
SAN IGNACIO
BILBO 14

BAZAR SANCHEZ
Virgen de Begoña 16
BASAHURI



Azken aldi honetan idatzirik ikusi ditudan izenburu bik bultzatu naute artikulu hau idaztera. Lehena, X. Gereñok idatziriko "Iruineako asasinatzea" da eta bigarrena, zenbait lekutan ikusi dudana "Deustuako Ikastola". Kasu bietan gaizki deklinaturik dauden herri biren izenak ageri dira: Iruñea (Iruinea edo Iruñea, ez baitago argi zein forma aukeratuko den) eta Deustua. Biek *a* batez egiten dute nominatibo kasua, baina hurrengo lerroetan ikusiko dugunez, "Iruñeko asasinatzea" eta "Deustuko Ikastola" idatzi behar dira, hots *-a*-gabe.

IZEN ARRUNTAK ETA IZEN PROPIOAK

Gauza ezaguna da, izen arruntak era mugatuz (singularrean eta pluralean) eta era mugagabez deklina daitezkeela. Izen propioek, ordea, ez dute hainbeste aukerarik eta modu bakar batez deklinatu ohi dira; gainera, deklinabide hau izen arruntent berdina (edo oso antzerakoa) da, eta horregatik, izen propioak era mugagabez deklinatzen direla esaten da.

Toki- eta herri-izenak ere, izen propioak izanik, modu berean deklinatzen dira generalean. Dena den, lekuzko kasuetan (Non, Nongo, Nora,...) deklinabide berezia dutela esan behar da, zeren eta mugagabez ageri diren *-ta-* artizkiak (menditan, menditara,...) ez baitira izen propioen deklinabideko kasu horietan agertzen.

Deklinabide hau nolakoa den ikusteko, bi izen hartuko ditut, bata kontsonantez bukatzen dena (Eibar) eta bestea bokalez bukatzen dena (Bilbo). Hurrengo koadroan, izen propio hauek kasu desberdinetan hartzen duten forma azaltzen da. Kasu horietan finkatuz, beste guztiak lor daitezke.

Koadro honetan ageri diren formei buruz, ohar bat egin behar da. Konkretuki, kontsonantez bukatzen diren izenen kasuan, beste joera hau ere badago batasunera bidean: Eibarko, Eibartik, Eibarra,... Honetaz Euskaltzaindiak ez du azken erabakia hartu, eta ordurarte hor daude bide biak aukeran. Nik neuk hobe erizten diot koadroko bideari, iparraldekoen joera biltzen baitu bizkaitar-ron joerarekin, eta gainera erregularrago baita. (Adibide gisa Paris delakoaren kasua dugu: Paris → Parisera, zeren eta, bestela, iparraldean Parise bailitzateke).

HERRIEN IZENEN DEKLINABIDEAZ (I)

Kasua

| | | |
|-------------|------------|------------|
| Nominatiboa | Eibar | Bilbo |
| Ergatiboa | Eibarrek | Bilbok |
| Datiboa | Eibarri | Bilbori |
| Posesiboa | Eibarren | Bilboren |
| Asoziatiboa | Eibarrekin | Bilborekin |

Lekuzko kasuak


| | | |
|------------|------------|----------|
| Inesiboa | Eibarren | Bilbon |
| Lokatiboa | Eibarreko | Bilboko |
| Ablatiboa | Eibarretik | Bilbotik |
| Direktiboa | Eibarrera | Bilbora |

A organikoa


| | |
|---------------|--------------|
| Donostia | Deustua |
| Donostiak | Deustuak |
| Donostiari | Deustuari |
| Donostiaren | Deustuaren |
| Donostiarekin | Deustuarekin |
| Donostian | Deustuan |
| Donostiako | Deustuko |
| Donostiatik | Deustutik |
| Donostiara | Deustura |

A ez-organikoa

| | |
|------------|--------------|
| etxea | Bizkaia |
| etxeak | Bizkaiak |
| etxeari | Bizkaiari |
| etxearen | Bizkaiaren |
| etxearekin | Bizkaiarekin |
| etxean | Bizkaian |
| etxeke | Bizkaiko |
| etxetik | Bizkaitik |
| etxera | Bizkaira |



Egilea: Larry Trask



Egilea: Larry Trask

Aurreko zenbakiaren osapena

LUZETARA

1. "Urak dakarrena ..." (2 hitz).
8. *Peru Abarka*-ren egilea.
12. Sabin Arana ...
13. Non ..., han sua.
15. Buruan dena.
16. Salvatierra (euskaraz).
18. Pafak.
19. Gehiegi.
20. Batu (infinitiba).
21. Gizonezko.
23. Bala batzuk honezkoak dira.
25. Zalantza, duda.
27. Haitza (bizkaieraz).
30. Oraindik.
31. Bizkaiko herri.
32. Ardo asko edanda gero, hau beteta dago.
34. Lehenago f, gaur ...
35. Alerta.
36. Lehengoa, 1932-ko martxoaren 25.ean gertatu zen
23. (2 hitz).
39. Eguzki-agurle.
40. "Egun ... don Pepito eta don Alfontso".
41. Ekaitz suntsitzaile.
43. Astatato (simbolo kimiko).
44. 'Lagun' adierazten duen atzizki (forma laburra).
45. Zurezko taula.
46. Balea hartzeko tresna (h-gabeko letreiuaz).
48. Astelehen (bizkaieraz).
50. Axularrek sortu zuen letra.
52. Lehen (bizkaieraz).
55. Lama.
56. Digante okaztagarriak.
58. Aitor-en alaba bat.
61. Grina (bizkaieraz).
62. Bizkaieraz, deusta; lapurteraz, daut; euskaraz ba-tuaz, ...
64. Lasaia, trankila.
65. "... Askatu!"
66. 1975.ean, ba ziren 166 hegoaldean eta besteak 34. iparraldean.

GOITIK BEHERA

1. Bizkaia eta Gipuzkoa artean den mendia.
2. "... jaunak".
3. 'Joera' adierazten duen atzizki.
4. Dut, hiketan.
5. ... izan (ihardun).
6. ... Starr, Beatle bat.
7. Atzizki plurala.
8. Euskadiko hiriburu bat.
9. Indibiduo.
10. Euskal sindikal talde.
11. Azkue non jaio zen.
14. 'Gainean' adierazten duen aurrizki (grekotik).
17. Bihi, ale.
20. Irri.
22. Bizitzaren forma behearena.
24. Itsasgizon.
26. Edozer.
28. Euskal musikatresna.
29. Akelarre batentzat behar dena.
32. Euskal nobelista (*Altzateko Jaun, Xanti Handia*)
23. (izen osoa) (2 hitz).
33. Argon (simbolo kimiko).
35. Modan dagoen aurrizki.
37. Frantses eskultore.
38. "... gara Euskadiko gazteri berria".
42. Ertasiako mendizerra.
47. Lerro, erreskada.
49. "Jaungoikoak ... hor dugu herria".
51. Puzzle honen egilearen deitura.
53. Eguzki (zuberoeraz).
54. Atzo gauean.
55. Footballetako gertaera.
57. Euskal probintzia bat (laburpena).
59. Gehiago (gaztelaniaz).
60. 'Lurra' adierazten duen aurrizki.
63. Titanio (simbolo kimiko).



Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 09 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia Tel

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa
ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

| | |
|-----------------------------------|------------|
| Bertorako | 700 pezeta |
| Latin Amerikarako | 800 pezeta |
| Europa eta Ipar Amerikarako | 900 pezeta |

Ale bakoitza: 35 pezeta

KAFETEGIA.



J. JAUREGI 6 ZORNOTZA. Tf: 673 00 21
Av. EJERCITO 4 DEUSTU. Tf: 447 97 75



ALDAEZINEZKO JABEGOAREN AGENTZIA
AGENCIA DE PROPIEDAD INMOBILIARIA.
Fernandez del Campo, 37. Tfnoak: 432 27 45
BILBO - 10

| | |
|------------------|----------------------------|
| General Mola, 26 | Bolue 3 C Trav. Villamonte |
| Tf: 449 92 54 | Tf: 460 01 62 - 460 01 66 |
| BASAURI | ALGORTA |

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA

Entzun, ikus...

**Caja Laboralaren zozketa:
50 Ekipo Estereofoniko eta 25 Telebista Koloredun**

Hobeki entzun dezazun.

Begiko duzun kantariaren saioa, gogoko duzun musikaldia -klasikoa nahiz egun egunekoa- musikaren egiatzko jatoritasun eta dimentsioa dasta dezazun. CAJA LABORALAK, fidelitasun handiko 50 ekipo estereofoniadun eskeintzen dizkitzu.

Hobeki ikus dezazun.

Munduko gertaera nagusiak berezko irudiz eta etxetik mugitu beharrik gabe, hurbil-hurbiletik ikus ditzazun -adib.: Argentinako Futbol txapelketa- edo ta gogoko duzun edozein teleaio ederki ikusteko, CAJA LABORALAK 25 Telebista Koloredun eskeintzen dizkizu.

Zozketa bikain honetan eskuhartzeko, Caja Laboralaren edozein etxetara hurbil zaite. Martxoaren 16tik hurrengo Maiatzaren 15 artekoan Libretan sartzen duzun. 1.000 pezeta bakoitzeko, eta lehendikako saldoan 10.000 pezetako hama zozketa txartel emango dizkizugu.



**CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA**



Eguneroko bizitza, IRUDI eta SOINU jatorrez jantz ezazu.